

Toy Dolls taldea

Jam aretoa bete zuen egubakoitzean
KULTURA, 22-23



Aloña irabazle UDAREN kontrako derbian

Mondrak azken minutan irabazi zuen; Bergarak putzuan jarraitzen du
KIROLA, 14

Maidar Unda

Espainiako txapeldun
KIROLA, 20



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko otsailaren 21a • 2. urtea • 46. zenbakia • 0,90 euro

Ezetzta nagusitu da Debagoiengan eta abstentzioa %63koa izan da

Galdeketaren kontrako kanpainak irabazi du gurean. Ia mila botoren alde lortu du ezetzak



SALBUESPENAK
Arrasate eta Eskoriatza izan dira salbuespenak. Baiezkoak irabazi du bietan

GIPUZKOAN BAI
Lurralde historikoan ez bezala, Debagoiengan ezetzta nagusitu da

ABSTENTZIO HANDIA
Leku guztietan bezala, debagoiengan ere partehartze txikia izan da

HAUTESKUNDE LASAIK
Atzo ez zen inongo arazorik egon hautesleketan; eguna lasai joan zen

ESPAINIAN BAI
Baiezkoak irabazi duen arren, PSOEek ez du lortu biztanleriaren erdia bozkatzera joatea



Debagoiena		Gipuzkoa		Bizkaia		Araba		Nafarroa		Espainia	
Errolda	53.463	Errolda	566.504	Errolda	949.497	Errolda	244.239	Errolda	454.349	Errolda	33.563.680
Absten.	33.823 %63,2	Absten.	358.417 %63,2	Absten.	576.018 %60,6	Absten.	143.940 %58,9	Absten.	264.786 %58,3	Absten.	19.359.017 %57,68
BAI	9.013 %46,3	BAI	115.836 %56,0	BAI	241.869 %65,2	BAI	65.807 %66,2	BAI	122.580 %65,3	BAI	10.804.464 %76,73
EZ	9.880 %50,8	EZ	84.235 %40,7	EZ	114.096 %30,7	EZ	29.352 %29,5	EZ	54.743 %29,2	EZ	2.428.409 %17,2
Zuri	430 %2,2	Zuri	6.528 %3,1	Zuri	14.543 %3,9	Zuri	4.154 %4,2	Zuri	10.286 %5,4	Zuri	849.093 %6,0

Denetariko zuhaitzak azoketan

Oñatiko Natur Eskolaren ekimenez hitzaldiak egingo dira asteen 7



AITOR LIZARRALDE

Onik aurkitu zuten atzo goizean zapatuan Gorbeian galdu zen Arrasateko gaztea 6

2004 urtean gehiago birziklatu dugu ibarrean baina baita hiri hondakin gehiago sortu ere 6

GEUREAN

- Zaleei zuzendutako ortuzaintza ikastaroa egiten dihardute Udalan | 4-5
- Ikusgai dago Bergaran Debagoieneko tranbiaren gaineko erakusketa | 6

Gipuzkoako udal euskaltegiek webgune berria dute | 06

EUROPAKO ITUNAREN GALDEKETA



AITOR LIZARRALDE

Partehartzea txikia izan zen egun osoan zehar. Oñatiko hauteskunde-mahaian ikus daitekeen jende kopuru txikiak ondo islatzen du eguneko giroa.

EUROPAKO ITUNA | 19.454 LAGUN JOAN ZIREN ATZO BOTOA EMATERA, BIZTANLERIAREN %36,3 BAKARRIK

Debagoienak ezetz esan dio itunari Arrasatek eta Eskoriatzak izan ezik

Arrasaten baiezkoak %52,2 atera zuen eta Eskoriatzan %50,7. Horiek dira geurean baiezkoak atera dituen emaitzarik altuenak. Ezezkoak, orotara, botoen %50,7 eraman du

Asteleheneko Goienkaria

Espero zen eta halaxe gertatu zen atzo. Europako Itunaren galdeketa ez zuen arrakasta handirik izan, nahiz eta Estatu espainiarrean baietza gailendu zen. Debagoienean ere halaxe izan zen, herritarren %36,3a baino ez zen hauteslekuetara joan. Abstentzioa altua izan da, beraz, %63,2koa, hain justu. Hauteskunde egunaren aurretik nabari zen atxikimendu eza baieztatu dute erreferendumaren emaitzek.

Orokorrean boto oso gutxi zenbatu zituzten hauteskunde-mahai guztietan eta herririk gehienetan, emaitzak jasota zituzten 20:30 alderako.

DEBAGOIENAK EZETZ

Bederatzi herritatik zarpitan ezetza nagusitu zen. Arrasate eta eta Eskoriatzan, berriz, aldeko jarraera azaldu dute boto emaleek.

Arrasaten baietak bostehun botoko alde atera zion ezezkoari eta Eskoriatzan, aldiz, 55 boto.

Aipatzekoa da, bestalde, Bergaran ezetzak izan duen eran-

tzuna: 551 botoen aldearekin nagusitu zen. Leintz Gatzagan oso jende gutxi animatu zen botoa ematera -68 lagun baino ez ziren hauteslekura joan- eta baietak 11 boto bakarrik atera zituen.

GIPUZKOAK BAIETZ

Gipuzkoan hautesleen erdiak baino gehiagok egin zuen bat abstentzioarekin, geurean bezala, baina, Debagoienean ez bezala, baiezkoa izan zen nagusi. Baiezkoak %56,07 izan ziren; ezezkoak, %40,7.

Gipuzkoan gertatu bezala, EAEn ere abstentzioa altua izan zen (%61,2); botoen kasuan, baiezkoak %62,6 izan ziren eta ezezkoak %33,6.

Debagoiena

Herria	Bai	Ez	Zuri	Abstentzioa
Arrasate	3.753 %52,2	3.213 %44,7	169 %2,3	12.120 %62,7
Bergara	1.959 %42,5	2.510 %54,5	104 %2,2	7.886 %63,1
Oñati	1.332 %43,8	1.649 %54,3	52 %1,7	5.801 %64,2
Aretxabaleta	832 %44,4	991 %52,9	38 %2	3.435 %64,7
Eskoriatza	558 %50,7	503 %45,7	33 %3	2.197 %66,6
Antzuola	334 %44,2	399 %52,8	16 %2,1	969 %56,2
Aramaio	126 %29,3	291 %67,8	8 %1,8	811 %65,4
Elgeta	108 %26,6	271 %66,7	6 %1,4	455 %52,8
Gatzaga	11 %16,1	53 %77,9	4 %5,8	149 %68,6

EUROPAKO ITUNAREN GALDEKETA

POLITIKOEN IRITZIA | DEBAGOIENEAN %63KO ABSTENTZIOA IZAN ZEN ATZOKO ERREFERENDUMEAN

Abstentzioa oso handia izan dela azpimarratu dute adituek

Debagoieneko hainbat lagunek Europako Itunak gurean izandako emaitzen balorazioa egin digute

AG

IMANOL BOLINAGA | EAJ
"Ikusten denez abstentzioak irabazi du"


'Abstentzioa altua izan da eta espero genuen gainera. Ikusten denez herritarrek urruti ikusten dute Europa baina gure artean da eta gure euskal indar guztiekin Europan bizitzen ikasi beharko dugu. Orain apirilaren 17rako hauteskundeak prestatu behar ditugu. Bereziko garrantzia izango dute'.

XABIER SARASUA | ARALAR
"Bailaran emaitza pozgarriak lortu dira"

'Balorazio gazi-goza egiten dut bailaran ezezkoa nagusitu delako baina gainontzekoan ez. Agian zerikusi handia du emaitza honetan hemen Ezezkoaren aldeko indar guztiek kanpaina bateratua egin izanak. Hurrengo hauteskudeei begira emaitza hauek abisua izan daitezke eredu neoliberalaren alde agertu den EAJ alderdiarendako'.

JOKIN ERRASTI | ELA
"EAJk hiru biztanletik bat besterik ez du konbentzitu"

'Gure balorazioa baikorra da batez ere Bergaran lortutako



Imanol Bolinaga (EAJ).



Xabier Sarasua (Aralar).



Jokin Errasti (ELA).



Paco Garcia (PSOE).

emaitzak ikusita. Abstentzioa handia izan da eta hori oso datu kezagarria da baina ulergarria bestalde egon den informazio eza ikusirik. Datu aipagarria: EAJk hiru biztanletik bakarria konbentzitu du erreferendum honetan'.

PACO GARCIA | PSOE
"Oso pozik nago lortutako emaitzarekin"

Balorazioa ezin daiteke positiboagoa izan. Egia da %43ak bakarrik bozkatu duela, baina emaitza oso ona izan da. Euskadin ere, ezezkoaren aldeko eska-



Pello Urizar (EA).

ri asko egon den arren, baiezkoak irabazi du. Otegi eskatu duen hauteskunde-zigorra ezezoaren aldekoek jaso dute. Arrasaten ere baiezkoak irabazi du.

PELLO URIZAR | EA
"Ezezkoaren aldekoek fidelotasun gehiago izan dute"

Esperantza txiki bat banuen ezeza aterako zela; hala ere, abstentzioa oso handia izan da eta aipatzekoa da ezezkoaren aldekoak fidelotasun maila handiagoa izan duelako baiezkoak eskatu duten alderdien boto-emaiile kopuruarekin alderatuta.



Antxon Mendizabal (Ez Plataforma).

ANTXON MENDIZABAL | EZ PLATAFORMA
"Europarekiko hoztasuna erakutsi du jendeak"

Garbi dago Europarekiko hoztasuna, urruntasuna dagoela; meteorologia bezain hotza. Prozesu elitista eta antidemokratiakoaren ondorio da. Gurean ezezta bikoiztu egin du Espainiakoa: nazio ikuspegitik ituna eskabide nazionalaren kontra dagoelako. Nazio zapalduen artean errepublikaren alde egiten dela erakutsi dugu. Euskal Herrian biztanleen laurdenarekin bakarrik atera da baiezkoa.



Analisisa

Mikel Irizar

Bixamon

Gertakari guztien ondoren iristen da bihamuna, baita Europako galdeketari ere. Hona bere ezaugarriak.

1. Partehartze txikia, txikiagoa gurean. Uste genuen ezezkoaren aldeko botoak partehartzea handitu egingo zuela, baina alderantziz gertatu da. Interes falta orokorrari gehitu behar zaio gurean alderdi abertzaleen arteko jarrera ezberdina. Konsigna zehatzei erantzuten ez dienak paso egin du orainoan.


2. Nafarroa askoz hurbilago ibili da EAetik Espainiatik baino, eta Iruñea izan da euskal hiribururik errebeldeena. Subjektu politikoa definitzeko bidean, berezitatea egoteak ez du oraino eragin handirik.

3. Espainiako emaitza txukuna da, balio dio Zapaterori trantzea gainditzeko. Europako hauteskundeak eta erreferendumak kontuan hartuta, ez dago gaizki. Beste kontu bat da ia non gelditzen den emaitza honetan entusiasmoa, baina Europako testuinguruan balekoa da.

4. Europari begira gehiago balio du baietzak, partehartzeak baino. Hau bihar ahaztu samar geldituko da eta, aldiz, tratatuaren aldeko dominoa abiatu da. Espainiaren baietzak beste batzuk bultzatuko ditu, eta Erresuma Batura iritsi orduko geldizina izan daiteke.

5. Joko zelaiak markatuta dago, aldatu nahi duenak ere kontuan hartu beharko du. Euskaldunok badugu zer landu zelai horretan zerbait lortzekotan. Hobe genuke begirada jasoko bagenu begirada zilborretik Europako zeruertzerara.

• EGUN LASAIA, PARTEHARTZE TXIKIA ETA ARAZORIK EZ.



HIRU AUKERA. Baiezkoa, ezezkoa ala boto zuria. Hiru aukera horiek izan zituzten hautesleek orainoan. Europako legebiltzarrerako 31 alderdi zeuden aukeran.



PARTEHARTZE TXIKIA. Atzokoan txikia izan zen partehartzea. Nabaria zen bai hauteslekuak hutsik egon zirelako eta baita hauteskontzietako boto kopuruan ere.



KONTAKETA AZKARRA. Kontaketa azkarra izan zen atzokoan. Beste batzuetan baino boto gutxiago zegoen kontaktzeko, eta zenbaketa bera ere errazagoa izan zen.

FRUTAGINTZAZ ETA ORTUZAIN TZAZ



AINTZANE AGIRRE

Udalako Ingurugiro eskolan aritu dira hogeita bost lagun inguru ortuzaintza eta frutagintza ikastaroan.

NEKAZARITZA | MENDIKOI ETA ARRASATEKO UDALAREN ARTEAN ANTOLATU DUTE IKASTAROA

Frutagintzari eta ortuzaintzari buruzko ikastaroa Ingurugiro eskolan

Nekazari txikiei zuzendutako eskolak eman dituzte Mendikoi eskolakoek Arrasateko Udalako Ingurugiro eskolan. Hogeita bost lagun elkartu dira

Marijo Deogracias

Elurra inguruan, hotza giroan eta euria goian behean. Hala ere, goizeko 9etarako Udalako Ingurugiro eskolara gerturatu ziren frutagintza eta ortuzaintza ikastaroan izena eman duten lagunak. Nekazari txikiak dira gehienak, euren zuzenduta egon baita Mendikoi, Arrasateko Udal Ingurugiro sailaren laguntzarekin, antolatu duen ikastaroa.

Bigarren esperientzia dute hau. Iaz frutagintza baino ez zuten landu eta, aurren, ortu-

zaintza gaiarekin osatu dituzte eskolak.

Mendikoi Mendi Nekazari-tza Eskolak esperientzia zabala dauka nekazariak hezten, baina "Udalakoa esperientzia berria eta gogobetekoa izan da", esan digute antolatzaileek. "Jende asko animatu da eta ia gehienak ortu txikiren baten aritzen dira".

IKUSPEGI EKOLOGIKOA

Zapatukoa eskola berezia izan zen. Amaia Ortiz, Neiker enpresako teknikaria, aritu zen eskolak ematen eta izurriteei zelan

egin aurre azaldu zuen. "Nekazari-tza integratua zertan den azaltzea izan da nire helburua; izan ere, baserritar askoren buruhaustea ortuarien eta fruten izurrite eta gaixotasunak izaten dira. Baina hauei aurre egiteko modu asko daude eta produktu kimikoen erabilera azkenekoa izan behar da. Aurretik metodo asko daude erabiltzeko moduan, baina ezagutu egin behar dira", esan zigun Amaiak.

Eskolen ostean eztabaida sortu zen zapatuan eta Amaiak aitortu zigunez, "oso gustura aritu naiz ikasleei kezka azaltzen. Kanean, egunero dauden kezka dira eta oso atsegina da azaldu diezaiekezula sumatzea".

Ikastaroko ikasleen artean, zapatuko saioan, nekazari-tza konbentzionala eta ekologikoa izan zituzten eztabaidagai. German Kortabarría Kalitatea Fundazioko zuzendariak esan zuenez,

"nekazari-tza konbentzionalak eta tradizionalak ez du esan nahi hobe denik; gaur egun nekazari-tzan dauden kontrolei esker produktu osasungarriagoak lortzen ditugu eta kontzeptuak aldatzen eta ez nahasten hasi behar dugu".

"Nekazari-tza konbentzionalak ez du esan nahi hobe denik"

"Uzta zaintzeko neurriak hartzeko SMS mezuak bidaltzen hasia aztertzen ari gara"

Amaia Ortizek esan zuenez, "garrantzitsua produktuaren bermea da; azken produktuaren bermea eta bitartean erabili diren produktuen bermeak. Erabilitako sistema gutxienekoa litzateke zentzu horretan".

IZURRITEEN KONTRA

Amaia Okariz Arabako nekazari-ekin aritzen da lanean, Neiker zentroak eta hango nekazari-ekin elkarlanari esker. Han nekazarien kooperatibek agintzen diete produktoreei erabili beharreko neurriak zeintzuk diren, izurrite sasoi bakoitzean.

Debagoienean, Lander Arregiren esanetan, "etorkizunean eskuko telefono bidezko oharrak bidaltzea da asmoa. Uzta zaintzeko neurriak hartu behar badira baserritarrei abisuak ematen hasi nahi dugu eta SMS bidezko mezu bideragarritasuna aztertzen hasi gara".

FRUTAGINTZAZ ETA ORTUZAINZAZ

LANDER ARREGI | MENDIKOI MENDI ESKOLAKO KIDEA

“Landa eremua gestionatuko dutenak heztea da asmoa”

M.D.

Udalako Ingurugiro eskolan egin genuen hitzordua Lander Arregirekin. Bera izan da han egin dituzten ikastaroen koordinatzailea. Gustura dago Lander ikastaroek izan duten harrerarekin.

Nori zuzendutako ikastaroa antolatu duzue?

Ogibidez nekazari ez direnkin pentsatzen antolatu genuen. Inkesta bat egin genuen ikastaroaren maila eta landu beharreko gaiak erabakitze eta horren arabera antolatu genuen ikastaroaren formatua. Gure asmoa, azken batean, bailarako landa eremua gestionatuko duen jende hori heztea izan da.

Eta ze gai lantzea erabaki zenuen?

Frutagintza eta ortuzaintza gaiak landu ditugu. Bigarrenez egiten dugu ikastaroa. Iaz frutagintza bakarrik landu genuen eta aurten horri ortuzaintza gehitzea erabaki dugu. Gai biak ikuspegi ekologista batetik landu dira.

Zer nolako ikasleak izan dituzue?

Oso talde dinamikoa izan da, aktiboa. Galdera asko egin dituzte eskola egunetan. Parte-hartzaileak izan dira eta hori guretzako ere positiboa izan da. Gainera meritu itzela daukatela aitortu behar dut: zapatuero etorri dira goizeko 09:00etatik 14:00etara, fin-fin.

Bestelako ikastarorik egiten duzue?

Profesionalei zuzendutako ikastaroak ere antolatu izan ditugu. Hala eta guztiz ere, Udalako Ingurugiro eskolan egiten ari garen honen berezitasuna da, datozenak ez direla ogibidez nekazaritzan aritzen. Nekazaritzan jarduten duten profesionalak, maila batean edo bestean heziketa bat badaukate eta, ikastaro berezituak antolatu izan ditugun



“Ikuspegi ekologikotik landu ditugu frutagintza eta ortuzaintza”

“Oso garrantzitsua da baratzean aritzen diren esplotatzaile txikiak heztea”

arren, ez da gure lehentasuna izan oraingo honetan. Ogibidez nekazariak ez direnendako izan da. Oso garrantzitsua da baratzean aritzen diren esplotatzaile txiki horiek heztea eta nekazaritzan gertatu diren teknika aldaketan berri ematea.

Nongo ikasleak izan dituzue?

Ia denak Debagoieneko ibarrekoak izan dira. Eskola guztiak, gaurkoa izan ezik –zapatueuskaraz izan dira. Guztira hogei bost lagun izan ditugu gelan eta amaitu orduko 80 eskola ordu zenbatuko ditugu.

• ZERGATIK ZATOZTE IKASTARORA?



M^a ISABEL ETA NEREA | ARRASATE

“Ikasteko asmoz etorri gara. Informazio asko jaso dugu eta oso interesgarria izaten ari da”

M^a Isabelek ortua baduela esan digu “eta ikasteko asmoz etorri naiz”. Nereak nekazaritza ingeniari teknikoak ikasi du: “esperientzia daukatengandik ikasteko asmoz etorri naiz”. Ikastaroa oso interesgarria iruditu zaiela diote biek. “Izurriteen kontrako produktuen gaineko gaia oso interesgarria izan da”.



MIKEL | ARRASATE

“Gazteendako oso interesgarria dela irudi zait”

Gaur egun ez dela baratzean aritzen esan zigun Mikelek, baina “ikastaroa oso interesgarria iruditu zait. Gazteendako interesgarria da eta animatu nahiko nituzke etortzera”.



JOSE RAMON, MARTIN ETA JOSE MARI | ARRASATE

“Lehen entzundako gauza asko eta egiten ditugun asko erabat aldrebes direla ere ikusi dugu”

Hirurek dute orturen bat eta badakite zer den horretan aritzea. “Heziketa teknikoak faltan sumatu izan dut beti eta horregatik etorri naiz” zioen Martinek. “Zuhaitzen tratamenduei buruz entzundakoa oso interesgarria iruditu zait”, esan zigun Jose Ramonek. Jose Marik, berriz, “interesgarria da gauzak nola egiten diren ikustea; egiten duguna askotan ez da zuzenena izaten eta”.

Hamalau urte ingurumena lantzen

Ingurumena ezagutzen lagundu, ingurumenarekiko jarrera positiboak hartu eta ingurumen arazoetan parte hartzeko gai izateko heztea du helburu Udala auzoan dagoen Ingurugiro Eskolak.

Horretan ari dira Ingurugiro Eskolako arduradunak 1991z geroztik. Eskola umeak, ingurugiroaren inguruan lan egiten duten taldeak, nekazaritzan aritzen direnak eta beste hainbat talde hartu ditu hamalau urte horietan eskolak.

Ingurugiro eskolaren lan nagusia ikastetxeetan ingurumen programak garatzea da, bai Lehen Hezkuntzan zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehenengo Zikloan ari diren ikasleekin. Heziketa prozesu horretan zaborraren arazoak aztertze kanpainak egi-

ten dituzte. Zentzu honetan, Debagoieneko Mankomunitatearekin batera, hiri hondakinen arazoak aztertze kanpaina bideratzen du urtero, neguan eta udaberrian.

Zuhaitz Eguna ere kalera begira bertatik bultzatzen den beste ekimenetarikoa bat da. Otsaila-martxoan aldera egiten dute, Arrasateko Udaleko Ingurumen sailarekin batera.

EGONALDIAK

Egonaldiak ere egin daitezke Udalako eskolan: egun bat eta bost egun artekoak dira egonaldiak, eta 6 eta 30 euro artean kostatzen dira.

Bestalde, webgunea ere badu Ingurugiro Eskolak, eta han, egiten dituzten jardueren gaineko informazioa dago eskuragarri: www.arrasate-mondragon.org.





AMAGOIA LASAGABASTER

Mankomunitateko arduradun politiko Juan Karlos Bengoa eta arduradun tekniko Mikel Jaio.

Gehiago birziklatu bai, baina zabor gehiago sortu ere bai

Aurten lur azpiko edukiontziak jarriko dira, Agenda 21eko ezarpena egiteko prozedura landuko da eta araudi berria egin gura da

A.G.

Barikuan eman zituzten ezagutzera Arrasateko Monterron jauregian 2004ko datuak Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko Juan Karlos Bengoak eta Mikel Jaio.

Mankomunitateko arduradun politiko Juan Karlos Bengoak jakinarazi zuenez Debagoiengan 8.234 tona zabor birziklatu dira 2004an, hau da, 2003an baino %10,2 gehiago. "Debagoiengan birziklapen maila ona dugu", esan zuen. "Batez ere, Gipuzkoako beste bailara

batzuekin alderatuz". Birziklatzeko gero eta kontzientzia gehiago dagoela gaineratu zuen.

Edonola ere, bada datu negatiborik. 2004an Debagoiendarrok 28.600 tona zabor sortu genituen, 2003an baino %5,1 gehiago.

Debagoiengan biztanleko 1,27 kilo zabor sortzen ditugu gauero

800 INKESTA

Mankomunitateak inkesta bat burutu du 800 debagoiendarren artean birziklapenaren inguruko ezagutza maila eta ohiturak zeintzuk diren argitzeko.

Oro har ezagutza maila ona da, baina hutsune handiak antzeman dira. Jendeak ez ditu disolbagarriak, pinturak eta antzerakoak birziklatzen, non egin ere ez dakielako. Kartoia, beira eta antzerakoekin, bestalde, ez dago arazorik.

Aurten, Mankomunitateak informazio eta sentsibilizazio kanpainak burutuko ditu. Lur azpiko edukiontziak jarriko dira, Agenda 21eko ezarpena egiteko prozedura landuko da eta hiri hondakinen gaineko araudia egiteko asmoa dago.

• EHNA-REN TRAMITAZIOA, ARETXABALETAN




AITOR LIZARRALDE

23 TRAMITAZIO BERRI EGIN ZITUZTEN ZAPATUAN

Bai Euskal Herriari taldeak EHNA egiteko mahaia jarri zuen zapatu goizean eta 23 berri egin zituzten. Taldeko kideek gogorarazi zuten, udaletxean ere badago aukera tramitazioa egiteko. Horretarako, errolda agiria, hiru argazki eta 15 euro besterik ez dira eraman behar. Tramitazioak egiteaz gain, zapatuan mahaia jartzek beste arrazoi bat ere izan zuen "hauteskunde bezpera izanda, bozkatzeko orduan herritarrak animatzea EHNA eramatara".

• TRANBIAREN ERAKUSKETA, BERGARAN



MONIKA BELASTEGI

EGUBAKOITZEAN IREKI ZUEN AMMAN SAILBURUAK

Arrasateko Bergarara eraman dute Debagoieneko tranbiaren trazatuaren erakusketa. Egubakoitz goizean inauguratu zuen Alvaro Amman sailburuak Victoriano Gallastegi Bergarako alkatearekin batera. Hamar informazio panelek osatzen dute eta osoko bilkuren aretoan dago ikusgai, astelehenetik egubakoitzera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; zapatuetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara egongo da ikusgai.

• GIPUZKOAKO UDAL EUSKALTEGIEK WEBGUNE BERRIA DUTE

ARTEMANEK EGIN DU ETA ASKOTARIKO INFORMAZIOA DAGO

Gipuzkoako udal euskaltegiek webgunea berri dute eta dagoeneko on-line dago www.udaleuskaltegiak.net helbidean. Artemane egin du eta erabiltzeko eroso da, kudeatzeko erraza, azken batean. Euskaltegien gaineko informazio guztia dago eskuragarri, euskaraz eta gaztelaniaz, lau ataletan banatuta: nortzuk gara (udal euskaltegien sarearen gaineko informazioa), txokoa (euskara ikasten ari direnendako informazio erabilgarria), helbideak (ikasleendako helbide interesgarriak) eta albisteak (udal euskaltegi bakoitzaren berriak).



UDAL EUSKALTEGIETAKO WEBGUNA

Onik aurkitu zuten atzo zapatuan Gorbeian galdutako arrasatearra

Asteleheneko Goienkaria

Gorbeian galduta eman zuen gaua Arrasateko 28 urteko gazte batek zapatuan. J.P.D. hizkidun gaztea lagun batekin joan zen mendira, baina eguraldi kaskarraren eta behe lainoaren eraginez galdu egin zen.

Arrasatearrak sakeleko telefonoa zeraman aldean eta Ertzaintzari deitu ahal izan zion. Salbamendu-taldeak hura lokalizatzen saiatu ziren arren ezin izan zuten aurkitu eta bilaketak dokema goizean jarraitu zuten domeka.

50 LAGUN HAREN BILA

Salbamendu-taldeen gain, hainbat arrasatear ere abiatu ziren atzo goizean gaztearen bila. 50 bat pertsona elkartu eta Gorbeira joan ziren lagunaren bila. 07:00etan abiatu ziren Arbolapetatik eta 08:00etan salbamendu-taldeen elkartu ziren bilaketari ekiteko.

Bilaketa hasi eta gutxira aurkitu zuen Ertzaintzak. Hipotermia pixka bat zuen hotzaren eraginez eta Gasteizera eraman zuten ospitalera. Ordu batzuk eman zituen han, baina dagoeneko etxean dago.

ZUHAITZ AZOKAK BERGARAN ETA OÑATIN | ZUHAITZ LANDAKETAK EGIN DITUZTE BERGARAKO SAN MARTZIAL AUZOAN

Fruta-arbolen eskaintza gero eta zabalagoa da azoketan

Argi dago dekorazio-zuhaitzen merkatuak gora egin duela. Lanabesen eta tresneriaren alorrean berrikuntza gutxi aurten

Larraitz Zeberio

Zapatuan egin zen zuhaitz azoka Bergaran. Oñatin, berriz, domekan. Eurria izan zen protagonista, baina Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Errioxatik etorritako saltzaileek tinko eutsi zioten euren zereginari.

Basoko zuhaitzak ekarri zituzten, pinuak eta intxaurreondoak esaterako. Bertako fruta-arbolak ere bai, hala nola sagarondoak eta madariondoak. Dekorazio-arbolak ere asko ikusi ziren. Limoiondoen, mandarinondoaren zein laranjondoaren merkatua handitzen ari da gurean ere.

Lorezaintzarako produktu ugari ere ikusi genituen, hala

nola bonsaiak, tamaina txikiko landareak eta bereziki loreak.

Baserriko tresnak ere saldu ziren Bergaran, tartean herriko Altuna etxeak eskainitako moto-

Datuak

- **POSTUAK:** 11 Bergaran eta 7 Oñatin.
- **ZUHAITZ SALDUENA:** Sagarondoak.
- **AZOKAKO ZUHAITZ BITXIENA:** *Filodendroa*. Landare tropikala, gelatinaz elikatu eta edukiontzi itxi batean handitzen dena.



LARRAITZ ZEBERIO

Bergarako azokan bonsaiak eta tamaina txikiko dekorazio-landareek interes handia piztu zuten.

zerrak, lurra iraultzeko zein belarra mozteko makinak eta mota guztietako esku-tresneria. Euritako arropa eta bestelako lanabesak Gernikatik etorri ziren.

ZUHAITZ LANDAKETAK

Goiza oso euritsua izan arren, bergararrek zuhaitz landaketa egin zuten San Martzial auzoan. Datorren domekan oñatiarren txanda izango da. Herriko plazan batuko dira goizeko 10:00etan.

Oñatiko Natur Eskolaren ekimenez, bestalde, asteon lau hitzaldi eta umeendako antzerki emanaldi bat antolatu dira. Hitzaldiak Natur Eskolan izango dira 19:00etan. Antzerkia, aldiz, domekan izango da.



AITOR LIZARRALDE

Oñatiko herriko plazan egin zen azoka zazpi postuk osatu zuten.

• URETAKO JOLASPARKEA ESKORIATZAN

UMEAK PLISTI-PLASTA IBILI ZIREN ATZO, KIROLDEGIAN

Eskoriatzako gaztetxoendako uretako jolasparkea antolatu zuen Udalak atzo, domeka, kiroldegiko igerilekuan.

Azkeneko urteetan antolatu ohi izan dute halako jolasparkea neguan, eta ume asko joaten da, gustura asko, gainera, uretan jolas egitera. Atzo ere hainbat ume ibili ziren kiroldegian antolatutako uretako jolasparkean. Adinaren arabera, bi ordutegi egin zituzten antolatzaileek: txikiak, 3 eta 9 urte artekoak, 16:00etatik 18:00etara egin ahal izan zuten jolas; nagusiagoak, 10 eta 14 urte artekoak, berriz, 18:00etatik 20:00etara.



AITOR LIZARRALDE

Bergaran euskararen kale erabilera %36,9 dela dio egin berri duten azterketak

M.B.

Bergarako euskararen kale erabileraren neurketaren datuak eman ditu ezagutzera udalak. 2004 urteari dagozkio datuok eta azarozan barrena 4.215 laguni egindako bost neurketatan dute oinarria. Emaitzen arabera, Bergaran euskararen kale erabilera %36,9 da – euskararen ezagutza, berriz, %70. Bestalde, erabileraren bilakaerari erreparaturaz gero, 2004ko erabilera 5,5 puntu jaitsi da 2003ko erabilera mailarekiko (%41,5), eta 2002ko mailaren parera etorri da

(%36,4). Dena den, 1983ra arte egin du atzera txostenak, eta gorabehera batzuk izan diren arren, Bergarako batez besteko erabilera %35-40 inguruan kokatzen da.

Erabileraren datuok adin taldeka aztertuz gero, 2-14 urte arteko haurrak dira gehien erabiltzen dutenak, %61,8, hain justu. Gutxien, berriz, 65etik gorako adinekoak, %20,1. 15-24 urteko arteko gazteek, %46,8 erabiltzen dute eta 25-64 urte artekoak, %28,3.

Sexuaren arabera, emakumeek 7 puntuko aldea ateratzen diete gizonezkoek erabileran.

www.memesa.com



OÑATI
Tel.: 943 71 80 80
Faxa: 943 71 80 45

ARRASATE
Tel.: 943 71 24 24
Faxa: 943 71 22 98

ARETXABALETA
Tel.: 943 71 24 11
Faxa: 943 71 20 04

Albiste izango da

ELGETA | IZENEMATE EPEA ZABALIK DAGO

Frutak modu ekologikoan zaintzeko ikastaroa antolatu du Maya taldeak

Fruten zainketa ekologikoaren gaineko ikastaroa antolatu du Maya Ingurumen Taldeak. Martxoaren 3tik 17ra bitartean izango da, bost saiotan, martitzen eta eguenetan, 17:00-21:00. Izenematea dagoneko zabalik duzue 943 76 18 00 telefono zenbakian.

Alfonso Gonzalez Eskualdeko Nekazaritza Bulegoko ardura-dunak eta Xabi Akizuk, frutak modu ekologikoan zaintzen dituenak, emango dituzte eskolak. Besteak beste, lurra zelan zaindu, oinarritzko teknika eta laboreen babesira irakatsiko dute. Ikastaroa bukatzeko, mota horretako zainketa leku bat bisitatuko dute.

BERGARA | HARPIDE EGITEKO AUKERA DAGO

Buletina hobetzeko inkesta egiten dihardu Gazte informazio guneak

Duela sei hilabete jarri zuen martxan gazte informazio guneak buletin elektronikoa. Izena emandako gazteei asterot iristen zaie posta elektronikoz eta, eurendako interesgarria izan daitekeen informazioa jasotzen dute, hala nola, Bergarako kultura ekitaldiak, lan eskaintzak, oposaketak, bekak... Gazte informazio guneak buletin elektronikoa hobetu nahi du eta horretarako harpiden laguntza eskatu dute. Harpide guztiei inkesta bidali zaie eta atal ezberdinen balorazioa egiteaz gain proposamenak ere eskatzen zaizkie.

Bestalde, gogorazi dute buletina jaso nahi dutenek *gzerbitzua@euskalnet.net* helbidera mezua idatzi besterik ez dutela.

OÑATI | GURASOEI ZUZENDUTA DAUDE

Hainbat tailer eta hitzaldi Elkar Hezi eta Txantxiku ikastetxeetan

Elkar Hezi ikastetxeko guraso elkarteak drogamenpekotasunaren prebentzioaren gaineko hitzaldi-tailerra antolatu du. Hilaren 23an eta 24an izango da, Santa Eskolastikako eraikinean, 18:30ean, eta 12 urteko gurasoei zuzenduta dago. Horrez gain, DBHren ondorengoko aukeren gaineko hitzaldia ere egongo da Elkar Hezin. Ana Sanz adituak egingo du etzi, eguaztena, Santa Marinako mediatekan, 19:00etan. DBHko 4. mailako eta Batxilergoko ikasleen gurasoei zuzenduta dago.

Horrez gain, Txantxiku ikastolan, seme-alaben garapenean sortzen diren zailtasunak gainditzearen gaineko hitzaldia egingo du Hilario Garriko psikologoak, hilaren 22an eta 24an. 18:30ean izango da eta gurasoei zuzenduta dago.

BIZKAIA | 18/98+ LAN TALDEAK ETA EHU-K DEITUTA

Eskubideen eta askatasunen gaineko jardunaldiak Donostian

Gaur astelehena hasiko dira Euskal Herriko Unibertsitateak eta 18/98+ lantaldeak antolatutako jardunaldiak. *Eskubideak, askatasunak eta estatu izaera (1996-2004)* izenburupean antolatu dituzte jardunaldiok eta bi saio egongo dira, biak ala biak, Bilboko abokatu eskolan. Lehenengoa gaur, astelehena, izango da, eta hainbat adituk hiru gairen gainean egingo dute berba. Besteak beste, adin txikikoen zuzenbide penalaz eta espetze erregimenaren gaineko azkeneko erreformez. Bigarren saioa hilaren 28an izango da, eta beste gai batzuen gainean alderdien legeaz jardungo dute.

DEBAGOIENA | PLAZA MUGATUAK DIRA

Bizikletaren oinarritzkoak ikasteko ikastaroa antolatu du Jardunek

Bergarako Jardun euskara elkarteak Bizikletaren oinarritzkoak ikasteko ikastaroa antolatu du. Besteak beste, bizikletaren zultuak nola konpondu eta postura egokiak zein diren irakatsiko dituzte ikastaroan. Lizarralde Kirolak dendako mekanikoez egingo dute ikastaroa eta bi saio izango dira: martxoaren 11n eta 18an, 19:00etatik 21:00etara, Bergarako Arrizuriaga jauregian. Izenematea martxoaren 4an bukatuko da eta plaza mugatuak dira. Prezioari dagokionez, euskaltegiatiko ikasleendako doan da, Jarduneko bazkideendako 4 euro eta gainerakoendako 6. Izena emateko Jardunera deitu: 943 76 36 61 zenbakira.

Hitzordua



GURASO ESKOLAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DAGO ESKORIATZAN | Hilaren 28ra bitartean egin dezakete izenematea aita-amek

Guraso Eskolaren egitasmoak arrakasta izan zuen iaz Eskoriatzan. Programa berria zen herri horretan. Debagoieneko beste herri batzuetan ere egin izan da, horietan ere erantzun politarekin. Hori ikusita, Eskoriatzako Udalak zabaldu berri du aurtengo Guraso Eskolarako izenemate epea. Udale-

txean edo kultura etxean egin daiteke, eta matrikula 10 euro da.

Martxoan, apirilean eta maiatzean, ordu eta erdiko saioetan, honako gaiak landuko dituzte: dolua familiar; haurtzaroa eta hizkuntza; eta anai-arreben arteko hartu-emanak.

ANTZUOLA |

• **Masaje ikastaro baterako izenematea zabalik dago**
Martxoaren 3an hasiko da, 19:00-20:30. Jose Luis Armentiak emango ditu eskolak, eta hastapen maila landuko dute. Izena emateko mugaeguna da martxoaren 1a, udaletxean. 35 euro da.

ARRASATE |

• **Matrikulazio epea Arrasate BH Institutuan**
Matrikulazio epea zabalik dago hilaren 25era bitartean, 09:00-17:00 ordutegian. Hori dela eta, informazio-batzarrak deitu ditu Institutuak gaur, astelehena, Aramaioko San Martin eskolan, 18:00etan, eta bihar, martitzena, Arrasateko Musakolako eraikinean, 18:00etan.

• **58koen kinto batzarrerako izenematea zabalik dago**
58ko kintoek meza eta bazkaria egingo dituzte martxoaren 12an. Izenematea martxoaren 6a baino lehen egin behar da, Jose Riviere edo Pedro Fernandezengana joaz.

• **Emakumeen kontrako indarkeria saihesteko legeaz**
Emakumearen kontrako indarkeriari aurre egiteko 1/2004 legearen gaineko berbaldia egingo du Nekane San Miguel epaileak etzi, eguaztena, Arrasateko udaletxean, 19:00etan.

• Gurasoendako hitzaldia

Arrasate Herri Eskolan
Gurasoek aginteari neurria hartzearen gaineko hitzaldia antolatu du Arrasate Herri Eskolak eguenerako, hilak 24, Bedoñabe eraikinean, 18:00etan.

• **Yoga ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago**

Yoga eskolak antolatu berri ditu Sanatana Dharma Yoga Eskolak: astelehena eta eguaztenetan, 09:30-11:00 (635 71 06 16, Maite), eta martitzen eta eguenetan, 18:45-20:15 (943 78 31 26, Ana).

• **Biodantza ikastaroan parte hartzeko aukera**

Biodantza ikastaroa antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak. Argibideak: 679 44 12 29.

BERGARA |

• **Sukaldari gazteen zikloan antolatutako afaria**

Sukaldari bergarar gazteen zikloa antolatu du Gure Ametsa elkarteak, eta hilaren 24an Imanol Rementeriak prestatutako afaria izango dute. Izena emateko azken eguna duzue gaur, astelehena. 24 euro da prezioa.

• **Ardo-dastatze ikastarorako izenematea zabalik dago**

Ardo-dastatze ikastaroa egingo dute martxoaren 18an. Doan da. Izenematea zabalik dago martxoaren 8ra bitartean, 943 77 91 59 telefonon.

• **Bagdad rap dokumentala,**

Komite Internazionalistekin
Bagdad rap dokumentala emango dute Komite Internazionalistek eguenean, hilak 24, kultura etxean, 19:30ean. Iraken gerraren gainekoa da.

DEBAGOIENA |

• **Ikastolen Elkarteak udarako begiraleak behar ditu**
Ikastolen Elkarteak begiraleak behar ditu uztailean izango diren euskara, ingeles eta frantseseko udalekuearako. Argibideak: 94 435 43 40.

• **Korrikako kilometroak eta laguntzaile txartelak erosteko**
Korrikako kilometroak salgai daude Arrasateko AEKn (943 77 03 69), 320 eurotan. Laguntzaile txartela ere salgai dago 12 eurotan AEKn, euskara elkarteetan eta tabernatan.

ELGETA |

• **Korrikaren gaineko argazkiak behar dituzte**
Korrikaren gaineko erakusketak egin nahi du herriko Korrika Batzordeak. Korrika Elgetatik pasa deneko argazkiak dituztenei dei egingo dute liburategira eramateko.

LEINTZ GATZAGA |

• **Sorginak emakume taldeak batzarra egingo du**
Bihar, martitzena, batuko dira euren egoitzan, 20:30ean.

nolako ikasketak, halako lana*

* **Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuak** egindako ikerketaren arabera, **MONDRAGON UNIBERTSITATE**an ikasitako en ikasketekin bat datorren lanpostua lortzen du; eta gainera, batz besterik bi hilabeteren buruan.

Iritziak



Isilpekoak

943 76 92 71
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

- Ezinduen aparkalekuak errespetatu egin behar dira**
Oñatiko irakurle batek txistua bidali digu ezinduen aparkalekuak errespetatzen ez dituzten auto-gidariendako. "Oñatin, kiroldegi inguruan gehien bat eta ordu puntetan edozerk balio du. Espaloi gainetan uzten dituzte autoak, baina ezinduen aparkalekuan ere bai. Aparkaleku horiek badute euren zergatia eta errespetatu egin behar dira".
- Zorionak Joxerra!**
Txaloak, aste honetan, Jose Ramon Vitoria irakasle eta musikari arrasatearrarendako jaso ditugu. Doktore tesia defendatu berria du Gasteizen. "Zorionak Joxerra, egindako lanagatik. Heziketa berezia behar duten zure ikasleekin lan bikaina egiten ari zara. Segi horrela!".
- Elgetako igoeran hasi da muqimendua**
Txaloak, Elgetako igoerako errepide bazterrean zuhaitzak botatzen ari diren langileendako. "Ari dira errepidea zabaltzeko lanak egin baino lehen inguruko zuhaitzak botatzen. Markatuta dago bihurtzeko behar diren moduan egiteko mendiari zenbat terreno kenduko zaion. Arbolak botatzen ere hasiak dira. Txukun gainera. Bide bazterrean utzi dituzte enborrak trafikoa-ri kalterik ez egiteko".
- Elbarriendako sarrerarik ez**
Txistuak jaso ditugu, azkenik, Bergarako herriko plazan dagoen tabernarendako. Tabernaren sarrera bakarra eskailek dira eta elbarriek zailtasunak dituzte bertara sartzeko. Taberna berria da, duela gutxi zabaldu zutelako, eta ez da bertan pertsona elbarrituendako sarrerarik aurreikusitako.

Sarean harrapatuta

Zer iritzi duzu pintadak egitearen gainean?

Azkenaldian hainbat pintada agertu dira Antzuolako kaleetan. Pintada horiek garbitzeak kostu ekonomiko handia izateaz gain, eraikinak ere kaltetzen ditu. Beraz, Udaltik eskatu dute pintada gehiago ez egiteko

eta beste espresio bide batzuk erabiltzeko. Albistea *Goiena.net*-en argitaratu eta segituan izan ditu erantzunak. Antzuolako eztabaida-gunean ere jarri dute gaia. Hemen jaso ditugu iritzi batzuk.

BESTE ZERBAIT EGIN BEHAR DUTE ALKATEEK

Azken aldiak pintadak zer esan handia ematen ari dira ibarrean: Bergarako alkateak pintada egileak atxilotzeko eskaria egin zuen; Antzuolakoak aldiz ez egiteko eskatu. Alde nabarmena dago. Hala ere, pintadak ez egiteko edo herritarrek atxilotu eta Madrilera bidaltzeko eskatu ordez, presoen eskubideen alde edota gazteon kontrako epailetan erantzuteko zerbait egingo balute ziur ez lirakeela horrenbeste pintada agertuko.

Neu / www.goiena.net

PINTADAK EZ DITUZTE ETXEAN EGINGO

Bai baina seguru egon pintada horiek ez dituztela euren etxetan egingo. Hauek dira hauek sasi-ekologistak...

Neu be / www.goiena.net

HERRITARREN HITZA ERRESPETATU BEHAR DA

Egia esan herritarrok dugun adierazteko era bat da pintadak egitea eta nik ez dut gaizki ikusten. Kartelak jarri eta kendu egiten dituzte, pintadak egin eta ezabatu egiten dituzte... Gainera, Udalean dauden horiek ez dute herritar askoren hitza errespetatzen. Horrela ez dezatela pentsatu pintadak egiteari utziko diogunik.

BOTEREDUNAK EZ DU PINTADARIK EGINGO

Mezuak kaleratzeko jartzen diren trabak ikusita, zer bide geratzen zaie jendea zabaldu nahi den hortaz enteratu dadin?

Boteredunak inoiz ez du pintadatik egingo. Normala da, boteredunak dena kontrolatzen baitu.

Kartel informatiboak jartzen dituzte, baina boteredunak hor bidaltzen du bere brigada kartel horiek kentzera. Ongi dago herria garbi edukitzea, baina zergatik ez dituzte datak errespetatzen?

Pintadak egoteko arrazoiak bukatzean pintadak ere bukatuko dira.

Mari / www.goiena.net

bakarrik konsignak eta mila bider errepikatutako leloen bidez. Pintadak egiten dituztenak ezguzta dira besterik egiteko, goikoei lan zikina egiteko baino ez dute balio.

Periko / www.goiena.net

BOTEREA EZ DUENAK EZ DU BESTE AUKERARIK

Ea noiz ikusi duzun boterea duen bateren bat pintadak egiten. Horiek komunikabideak manipulatu, polizia dominatu eta zapalduak atxilotu (torturatu), epaitu eta kartzelaratu dituzte. Boterean ez dagoenari ze aukera gelditzen zaio?

Txop / www.goiena.net

ARAZOA KONPONTZEN SAIATU BEHAR DA

Ez dut pintadana oso ondo ikusten. Azkenean kaltea besterik ez du egiten, gero diru asko joaten baita pintada horiek kentzen. Baina, badakit kartelak kendu egiten dituela jende askok, zergatik? Laga kartelak jartzen eta jendeak pintadak egiteko behar gutxiago edukiko du.

Pintadak egitea atentzioa emateko ekintza bat da. Pintadak ez egiteko esan baino, uste dut hobe dela pentsatzea zergatik egin diren pintada horiek eta arazoa konpontzen saiatu.

Antzuolarra / www.goiena.net

Apartheidik ez dugu nahi gure herrian.

Jotake / www.goiena.net

GOIKOEN LAN ZIKINA EGITEN DUTE PINTADEK

Jotake bezalako jendeak erakusten duen adimen-kozientea zero azpitik dago. Saiatu zaitze zure kabuz pentsatzen eta ez

Halaxe erantzun digute

Pilotan, material aukeraketak, hika-mika ugari sortu ditu. Zein lirakeke erabili beharreko pilota mota egokiak



JUANITO ARRIARAN | PILOTAZALEA

"Medio botekoak, pareta jotze-rakoan zarata ona ateratzen dutenak, eta gurutzatuetan gorantz irteten direnak. Orain pilota guztiak antzekoak dira: txikiak, pisu handikoak eta oso biziak. Ez dituzte alearekin egiten, zuntz batekin baizik. Goma gehiegi dute eta lana gutxi. Kanikak dira".



AITOR ELKORO | PILOTARIA

"Pilota estandarrak nekez lortuko ditugu, frontoiak ere oso desberdinak direlako. Nire iritzi denetariko pilotak daude orain ere: biziak, motelak, gastatuak, berriak... Eztabaida hauek kome-nigarriak izaten dira saltsa sortzeko. Enpresek, gainera, beti egingo dute pilotarien alde".



PATXI MURGOITIO | PILOTA EPAILEA

"Pilotari profesional batek pilota guztiakin jakin beharko luke jokatzeko. Orain, ordea, enpresek aukeratzen dituzte pilotak eta pilota biziak ez dute jokalaririk. Sistema da txarra. Zer gertatzen da epaileekin ere? Laster enpre-sen langileak izango dira. Non dago hor independentzia?"



JOKIN ETXANIZ | ASPEKO ZUZENDARI TEKNIKOA

"Arau batzuk eta neurri batzuk daude. Gero, bakoitzak bere pilota aukeratu behar du eta hor interesak daude. Niri irteera eta bote handiko pilotak oso itsusiak iruditzen zaizkit. Aukeraketa sistema, berriz, ez zait txarra iruditzen. Eztabaida eta pilota beti egon dira lotuta eta egongo dira".



Egunkarietako harribitxiak

LOUVRE MUSEOKO KOPIATZAILEAK

Louvrrera ia egunero artista ezagunen lanak margotzera joaten diren kopiatzaileen gainean erreportajea egin zuen atzo *Zazpikak*. Bakoitzak bere autore kuttuna du, eta orduak ematen dituzte haren lanak kopiatzen. Batzuk oso onak dira eta haien kopiak adituek bakarrik ezberdinduko lituzkete orijinaletatik.

'Zazpika'
2005-02-20



OIZ, HILERRI

Hogei urte bete ziren zapatuan hegazkin batek Oiz mendian (Bizkaian) istripu larria izan zuela. Ezbeharrean 148 lagun hil ziren. Sekula Euskal Herrian gertatutako hegazkin istripurik latzena izan zen. Istripuaren urtemuga gogoraraziz erreportaje zabalak egin zituzten atzo hainbat egunkaririk, *Berriak*, esaterako. 1985eko otsailaren 19a zen eta goizeko bederatzia eta erdiak jotzeko zeuden Iberiaren Boeing 727

hegazkina, Alhambra de Granada izenekoa, erori zenean. Sondikako aireportuan lurreratzen zihon, eta 09:25ean lurreratzeko baimena eman zioten aireportuko kontrolatzaileek. 09:30ean ez zela agertzen ikusita, Sondikako kontrol dorrekoak hegazkinekoekin hitz egiten saiatu ziren. Ez zuten erantzunik jaso.

'Berria'
2005-02-20



Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2005-11-20

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

260 AFEKTATU BAINO GEHIAGO

18/98+ lan taldeak Kursoalean egindako ekitaldiak balio izan zuen han batu ziren jatorri sozial eta ideologiko ezberdineko ia 2.000 lagunaren aurrean zera adierazteko: badirela argumentu nahikoa erakusten dutenak ez ohiko auzia dela, berme juridikorik gabea, eta hasieratik auziperatu bakoitzaren oinarritzko eskubideak bortxatu dituenak.

Editoriala
2005-02-20

'Berria'

ELKARTASUN ADIERAZPENAK

"1998an, Garzonek atalka ezker abertzalea deitzen zaion sarea kartzelaratu zuela uste izan zuen. Ez zuenez lortzen, Alderdien Legea onartu zuten PPK eta PSOEek. Garzonek zuen guztia aktibatu zuen orduan, lehian bezala. Eta gaiak azken muturrera oinarri sendorik gabe eramatean eskandalua sor daiteke; hori da 18/98ak sortu duena".

Joseba Egibar
2005-02-20

'El Mundo'

MATXISMOA ERTZAINTZAN

Berdintasun Legea onartu izana ezberdintasun egoerak ari da agerian uzten. Polizian aukera berdintasunaz berba egitea txistea da, eta Ertzaintza, gaztea bada ere, ez da salbuespena, esandakoaren baieztapena, baizik. (...) Emakumeak *sexu ahultzat* jotzen dituzte, eta ez daude istiluen kontrako taldean edo lehergailuak maneiatzen.

La Makila
2005-02-20

'El Diario Vasco'

NAHASMENA, ERRUGABETASUNA...

Blair-ek bezala eskatuko al digu norbaitek barkamena, Estatua nahastu egin dela eta? Gu, behintzat, indar guztiz saiatuko gara eguren prezioan saldatuko gezurra salatzen. *Egunkariaren* eta euskal kulturaren egia erakusten. Zerbait ez dago zuzen epaiketa gabe egunkari bat itxi eta desegiten den demokrazian, Tanzanian izan nahiz izan European.

Joan Mari Torrealdai
2005-02-20

Zorroztailea



Biharamuna

Europako Konstituzioa bozkatuko da gaur; Hegoaldean. 2.250.000 herritar daude bozkatzera deituak, itunari bai edo ez esateko. EAJk, PSE-EEK eta PPK baiezkoa eskatu dute; Batasunak, EAK, Aralarrek eta EB-IUK, aldiz, ezezkoa. Abstentzioa handia izango dela diote inkestek (...) Europako gaiek abstentzio handia eragiten dutela ikusten da.

'Berria' | 2005-02-20

Elena Laka

"BIXAMON. 1. Biharamuna, hurrengo eguna. 2. Ajea". Halaxe jasotzen du *Bergara aldeko hiztegia* dotoreak. Euskaldunak eta debagoiendarrak oraina parrandarekin lotzen dugunaren seinalea ote? Biharamunean ajea izaten ote dute debagoiendarrek, nahiz eta Iban Zalduak debagoiendarrak "kalbindar" moduan aipatzen dituen? Parranda eta lana, ying eta yang. Euskal Herria eta Europa? Uztartuta ala batera ezinak? Zuk, irakurle, honez gero badakizu zer iritzi diogun horri hegoaldeko euskal herritarrok. Nik, lerro hauek idazterakoan, oraindik ez. Ala bai?

Gaur, astelehena, euria eta hotza, debagoiendarrak eta euskaldunak lanera joateko jaiki gara, mingain lehorrik eta bihotzerrre barik, burua fresko. Irratian entzun dugu kinielaren emaitza:

Espainiak bai, Euskal Herriak ere bai, gehiengo abstentzioak, Euskal Herrian ezezko boto kopurua oso handia. Emaitza: aitortzen ez gaituen European sartu gaituzte, seguru asko legitimitzat emanez beste erabaki batzuetarako ukatzen dituen boto kopurua. Ez zaigu begitandu ospatzeko ezer dagoenik, bixamona beraz, biharamuna, ez ajea.

Baiezkoak irabazi eta hurrengo egunetik baiezkoa eskatu dutenen pronostikoak betetzen hasteko garaia hasten da: zelan izango den Euskadi gehiago Europarekin, zelan Hegoalde eta Iparraldearen arteko lotura indartuta aterako den. Frogatzen bada, debagoiendar kalbinistak lanera bixamon-ajearekin joateko prest geundeko. Ostera (esan aitzitik, Iparraldearekin harremanak sendotzen haste aldera) begiratu lankideari, eta ajea baldin badu, galdetu zapatuan zein sagardotegitan izan zen.

"Baiezkoak irabazi eta hurrengo egunetik baiezkoa eskatu dutenen pronostikoak betetzen hasteko garaia hasten da"

"Zelan izango den Euskadi gehiago Europarekin, zelan Hegoalde eta Iparraldearen arteko lotura indartuko den"

KIROLA

- Mugarri Alkesak berriz irabazi zuen; oraingo honetan Kalagorin | 19
- Arrasate Errugbi taldeak lehen mailan jarraitzea lortu du | 20

Johathan Perezek ez du zortetik izan Espainiako Txapelketan | 21

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK



ARGAZKI PRESS

Nihatek lotailuak hautsi zituen Sevillaren aurkako partiduan, eta denboraldi guztia galduko du Realeko goleatzaile onenak.

REALA | ZAZPI PUNTU JARRAIAN LORTUTA JAITSIERAKO POSTUAK URRUNAGO DITU TALDE TXURI-URDINAK

Kovacevicek esaten duen bezala "Si Darko gol, no problema"



Jokin Etxebarria

Realak goleatzaile onena galdu du denboraldi osorako: Nihat. Baina, Darko Kovacevic golak sartzen hasten bada, lasaiago ibiliko gara realzale guztiak ziur asko

Negarrez hasteko zorian egon zen Darko Kovacevic gola sartu ondoren. Denbora pila bat zerman golik sartu gabe, eta dagoneko merezi zuen gol bat sartzea serbiarrak, egiten duen lana bikaina da eta.

Golak gainera, hiru puntu garrantzitsu eman zizkion talde txuri-urdinari. Azken asteetan joko hobekuntza egon dela esan daiteke. Valentziaren aurka nahiko ongi jokatu zuten, nahiz eta operari asko egin. Santanderreko

lehen zatia ere ona izan zen, eta zapatuan Sevillak ez zuen gauza askorik erakutsi Anoetan. Badi-rudi Amorrortuk azkenean asmatu egin duela, Karpin zelai erdira ekarrira eta Xabi Prietori eskuin hegala emanez. Joan zen

asteen esan nuen ez zela harritzekoa izango Amorrortuk sistema bera erabiltzea, eta horrelako fruituak ematen baditu ni ere horren alde agertzen naiz.

AGUR GOLEATZAILEARI

Zoritxarrez atzo notizia txar bat jaso genuen: Nihatek ezin izango du denboraldia bukatu lotailuak apurtu dituelako. Beraz, litekeena da, Anoetan txuri-urdi-nez jantzita turkiarra gehiago ez ikustea. Garbi dago Realak ezin duela ordaindu berak eskatzen duena, eta talde asko daudela

turkiarraren atzetik. Pena da, baina posible da turkiarraren golik Anoetan gehiago ez ospatzea. Hala ere, "si Darko gol, no problema". Serbiarra golak sartzen hasten bada, ez litzateke aldaketa txarregia izango. Ate bat ixten denean leiho bat zabaltzen dela diote. Ea egia den.

Orain daukadan duda hau da: Nihatzen postua betetzeko, Oskitz berreskuratuko du Realak, edo Mladenovic bezalako "izar" berri bat ekarriko du Astiazaranen zuzendaritzak? Erantzuna hurrengo kapituluetan.

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

• ZER IRUDITZEN ZAIZUE MLADENOVIC-EN FITXAKETA?



JON ETA JULEN |
BERGARA

"Altuera dauka, eta baloi asko lapurtzen ditu. Fitxaketa ona da"

"Oraindik hobetuko duen esperantza daukagu. Internazionala da eta horrek zerbait esan nahi du. Altuera dauka, eta baloi asko lapurtzen ditu. Mladenovic fitxaketa ona da".



JABIER |
OÑATI

"Ez dut jokalaria ezagutzen, ez duelako jokatu"

"Ez dut jokalaria ezagutzen, ez duelako gehiegi jokatu. Ez dut fitxaketa ulertu, gainera Amorrortuk ez dio tokirik bilatu".



OLAIA, AINHOA ETA SELENE |
BERGARA

"Gure ustez, Mladenovicen fitxaketaz gain askoz gehiago egin beharko lituzke Realak"

"Gure ustez, Mladenovicen fitxaketaz gain, askoz gehiago egin beharko lituzke Realak. Gainera, orain, Nihaterek ere min hartu du, eta beste aurrelari bat fitxatu beharko lukete talde txuri-urdineko zuzendariak".



GORKA, ANDER ETA ALEX | ARRASATE

"Uste dugu, Mladenovicen lan ona egingo duela taldearentzat"

"Bere izena ahoskatzea ez da batere erraza, baina uste dugu lan ona egingo duela taldearentzat. Errealean beti jokari onenak zarata handirik atera gabe lan egin dutenak izan dira eta jokari hau horietakoa dela uste dugu".



JANIRE, GOIZANE ETA NEREA | BERGARA

"Mladenovic jokari garrantzitsua izan daiteke talde txuri-urdinarentzat"

"Realaren jarraitzaileak gara eta uste dugu jokari berria ondo etorriko dela taldearentzat. Gainera, Nihaterek min hartu eta gero, Mladenovic jokari garrantzitsua izan daiteke talde txuri-urdinarentzat".

Athletic

Galaktikoen unibertsoan erraz mugitzen direla erakutsi zuten lehoiek

Beraien jokoan erakusten duten segurtasunak poz handiak ekar ditzake aurtengo denboraldian

adierazi gabeko gola, Iraolak balaio hanka azpitik Samueli pasa izana (area barruan eta atezainaren aurrean gelditzeko) eta beste hainbeste jokaldi. Baina zer da onena? Azken bi hilabeteetan ildo bera jarraitu dutela.

ATHLETICEK MEREZI DU!

Merezi du! kanpaina zabaldua dago Bergaran eta Athleticen ere lema bera jarraitu behar dute. Merezi du Lezamako jokalariei aukerak ematea; merezi du 106 urteko filosofia mantentzea; merezi du ligako momentu txarrak eta onak bizitzea; merezi du kopan ilusioa izatea; merezi du UEFAgatik borrokatzea. Merezi du Athleticen taldea animatzea, orain eta beti.



Jon Unamuno

0-2 Santiago Bernabeun. Eta ez zen 0-3 izan marrazaina ontzari begira egon zelako. Azkenaldi honetan Athletic ikustea gozamen da. Jokalariek euren jokoan segurtasun handia erakusten dute eta gainera talde homogeneo bat osatzen dute. Denboraldi historiko baten aurrean gaude. Maila hau mantenduz gero, Kopa edo UEFA irabazteko aukerak dituzte eta hori, Athletic moduko talde batendako, izugarriko arrakasta da.

Jokalariai gazteak dira eta gazteen lotsagabekeria erakusten dute. Ez dira erraz kikiltzekoak (Yesterena apartekoa da) eta zapatuan kalitatezko hainbat jokaldi ikusi genituen: Orbaizen

Jokalariek euren jokoan segurtasun handia erakusten dute

Ez dira erraz kikiltzekoak eta zapatuan kalitatezko hainbat jokaldi ikusi ziren

• ATHLETICEKO ZALEAK



JON UNAMUNO

POZA IZAN ZEN NAGUSI

Irudi batek mila hitzek baino gehiago adierazi dezakeela esan ohi da. Argazkiko momentua Del Hornoren golarena da eta gero Iraolak, partiduko onenak, bigarrena sartu zuenean eromena etorri zen. Zaleren batek edo bestek Iraola ukitu nahi izan zuen telebista ukituz. Partidu polita izan zen eta zaleek hainbat momentutan Athleticen aldeko abestiak abestu zituzten. Taldeak merezi dituen zaleak ditu.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

R.Madril-Athletic	0-2
Vila-real-At. Madril	3-2
Betis-Deportivo	2-0
Malaga-Espanyol	3-2
Reala-Sevilla	1-0
Racing-Valentzia	1-0
Levante-Zaragoza	0-0
Bartzelona-Mallorca	2-0
Getafe-Osasuna	0-0
Albacete-Numantzia	1-2

HURRENGOAK

Espanyol-Albacete
Numantzia-Bartzelona
Valentzia-Betis
Sevilla-Racing
Deportivo-R. Madril
At. Madril-Reala
Athletic-Getafe
Mallorca-Levante
Zaragoza-Vila-real
Osasuna-Malaga

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	57	24	18	3	3	49	17
2. Real Madril	50	24	16	6	2	43	19
3. Betis	41	24	11	5	8	39	28
4. Sevilla	41	24	12	7	5	28	25
5. Vila-real	40	24	11	6	7	41	21
6. Valentzia	38	24	10	5	8	35	23
7. Espanyol	38	24	11	8	5	30	27
8. Athletic	35	24	9	7	8	39	32
9. At. Madril	33	24	9	9	6	26	23
10. Deportivo	32	24	7	6	11	33	34
11. Osasuna	30	24	8	10	6	33	39
12. Reala	29	24	8	11	5	30	34
13. Zaragoza	29	24	8	11	5	29	38
14. Malaga	28	24	8	12	4	19	32
15. Getafe	27	24	7	11	6	22	27
16. Levante	27	24	7	11	6	25	36
17. Racing	24	24	6	12	6	22	36
18. Albacete	23	24	5	11	8	22	33
19. Mallorca	21	24	5	13	6	23	39
20. Numantzia	17	24	4	15	5	15	39



Kiniela

KINIELA

1. Getafe-Osasuna	X
2. R. Madril-Athletic	2
3. Betis-Deportivo	1
4. Reala-Sevilla	1
5. Vila-real-At. Madril	1
6. Levante-Zaragoza	X
7. Bartzelona-Mallorca	1
8. Albacete-Numantzia	2
9. Malaga-Espanyol	1
10. Racing-Valentzia	1
11. Alaves-Murtzia	2
12. Recreativo-Celta	2
13. Gimnastic-Cadiz	X
14. Xerez-Cordoba	X

PREFERENTE MAILA



AITOR LIZARRALDE

Aitor Lopezek erdialdean baloi asko lapurtu zituen eta Aloñak asko eskertu zuen bere lana.

Arnas pixka bat hartzeko hiru puntuak Aloñarendako

ALOÑA MENDI

2-0

UDA

Aloña Mendi | Jonan, Aitor, Barrena, Jagoba, Olalde, Igartua, Garai (Astigarra 90. min.), Mikel (Biain ats.), Albizu (Arregi 86. min.), Moia (U. Arregi 69. min.) eta Aramendi (Roberto ats.).

UDA | Eriz, Lur, Oxel, Iturbe (Juan 77. min.), Iregi (Ibarrondo 47. min.), Eriko (Arriaga 71. min.), Haritz, Erik (Canas 57. min.), Kepa, Orueta eta Joseba (Imanol 62. min.).

Golak: 1-0 Albizu. 2-0 Roberto.

Epailea: Jon Etxarri. Txartela gehiegi atara zituen epaileak izan zen partidurako. Lehenengo kanporaketa justua izan zen, baina bigarrena ez.

Jon Unamuno

Sailkapenean oso parekatuak dauden bi taldek jokatu zuten atzokoan. Felix Recio bere lehen partidua zuen eta jokalariek alde-aldaketa batzuk ikusi zituen. UDAREN egoera ez da ona eta taldeak azkenaldian hartu duen bolada txarrari buelta eman beharko dio. Aloñak, aldiz, aurreko asteburuan Touringen kontra lortutako garaipenarekin gorantz doazela erakutsi nahi zuen eta hiru puntuak hori berretsiko zuketuen.

Aukera asko sortuz hasi zuen partidua Aloñak. 12. minutuan Aramendik pase zoragarria eman zion Albizuri eta honek ondo gainditu zuen Eriz. Aukera gehiago izan zituzten Aitor Oruetaren mutilek, baina ez zen gol gehiagorik etorri. Desagertuta egon zen talde aretxabaletarra lehen zatian. Oñatiarrak baloi asko

lapurtzen zituzten eta UDako jokalariek ez zuten Jonanen atara jaurtitzetik izan.

ELURRA ZELAIRA ETA UDAKO JOKALARIAK KANPORA

Bigarren zatiko zazpigarren minutuan Iker Orueta kanporatua izan zen eta gauzak zaildu zitzaizkion Felix Reciori. Hala ere, Canas, Imanol eta Arriaga atara zituen minutu gutxian eta aukerak sortzen hasi ziren. Lehen Arriagak eta bigarrena Iba-

rondok izan zuten. Korner baten ondorioz, baloia nora jaurti pentsatzeko denbora izan zuen, baina kanpora jaurti zuen. Bost minutu beranduago kanporatua izan zen jokalaririk bera eta Aloñari gauzak asko erraztu zitzaizkion. Albizuk aukera oso argi bat izan zuen baina ez zen fin ibili. Jarraian sartu zuen Robertok bi eta hutsekoa. Azkenean hiru puntuak merezita gelditu ziren Oñatin eta Aloña sailkapenean gora begira hasi da.

• HORRELA IKUSI DUTE ENTRENATZAILEEK



AITOR ORUETA | ALOÑA MENDI

“Lehen gola azkar sartzeak asko lagundu digu”

“Lehen gola azkar sartzeak asko lagundu digu partiduan nondik norakoan. Lehen zatiaren lehen 30 minutuak geureak izan dira, baina gero euren ere min asko egin digute. 10 jokalarirekin gelditu direnean ere aukera argi batzuk izan dituzte. Pozik nago garaipenarekin, horrez gain, golaberajea ere alde dugulako”.



FELIX RECIO | UDA

“Zelaiaren egoerak asko baldintzatu gaitu”

“Zelaiaren egoerak asko baldintzatu gaitu. Eurak ohituagoak daude horrelako zelaira eta hobeto moldatu dira. Oso pozik nago nire jokalariekin, izan duten jarrera oso ona izan da eta. Epaileak ere emaitzan zerikusia izan du. Txartelak ateratzeko orduan ez du irizpide bera jarraitu bi taldeekin”.

Mondra Athleticen antzera Txerloian

Asteleheneko Goienkaria

ANAITASUNA

2-3

MONDRA

Anaitasuna | Del Rio, Mujika, Alkorta, Romero, Aranbarri, Aaron, Elizalde (Aristi 87. min.), Gari, Mendizabal (Zabala 81. min.), Bastida (Sudupe 81. min.) eta Exposito.

Mondra | Mikel, Markel, Illart, Merkader, Laspiur, Ruben, Arkaitz (Inazio 56. min.), Loiti (Lopez 62. min.), Muxi (Heriz 45. min.), Keixi (Maikel 81. min.) eta Asier (Torres 45. min.).

Golak: 1-0 Mujika. 2-0 Exposito. 2-1 Laspiur. 2-2 Ruben. 2-3 Lopez.

Epailea: Mikel Iarza. Nahiko gaizki.

Athleticek etxean jokaturako azken bi partiduetan bezala, Mondrak partiduari buelta ematea lortu zuen Azpeitian. Bi eta huts galtzen joan eta gero, markagailuari buelta ematea lortu zuen, bigarren zatiko deskontuan Lopezek sartutako golari esker. Lehen zatian aukera politak izan zituen Mondrak, baina zerrajeroen aurrelariak ez ziren fin ibili. Josu Zubiak adierazi zigunez “tonto aurpegiarekin” joan ziren aldageletara arrasatearrak, aukerak euren jarri eta gola etxekoekin egin zuten eta. Hala ere, bigarren zatian egindako golei esker hiru puntuakin bueltatu ziren Mondrakoak.



AINZANE AGIRRE

Zelai erdian ez zen joko askorik egon eta aukera gutxi sortu zituzten.

Errezagi galdu zuen partidua etxean Bergarak

BERGARA

0-3

ORDIZIA

Bergara | Markel, Aitor B., Ormaetxea (Iñaki 81. min.), Aritz Agirre, Loiola, Oskar, Zubikarai, Alzola (Imanol 71. min.), Garin, Otero eta Arana (Martin 77. min.).

Ordizia | Martin, Arkaitz, Aitor (Iker 81. min.), Iraola, Lekuona, Aitzol (Egoitz 71. min.), Iñigo, Sergio (Ander 84. min.), Irastorza, Xabi eta Igor.

Golak: 0-1 Xabi. 0-2 Sergio. 0-3 Igor.

Epailea: Asier Blanco. Ondo.

te. Esaten genuen aurreko astean etxetik kanpo ez baldin baziren puntuak lortzen, etxeko partidua final bihurtuko zirela. Zapatukoa lehenengo finala izan zen eta 0-3ko markagailuarekin adierazi zuen amaiera epaileak.

BIGAREN ZATIAN GOLAK

Lehenengo zatia nahiko orekatua izan zen. Aukera argi bana izan zuten bi taldeek, baina markagailua ez zen mugitu.

Bigarren zatian Ordiziak, bere kalitatearen bidez, bi gol polit sartu zituen. Lehen baloi loratu batekin. Aranak berdintzeko aukera izan zuen, baina kanpora jaurti zuen. Bigarrena eskudratik sartutako ezkerkada baten bidez etorri zen. Partidua amaitzean zegoela heldu zen azkenekoa. Gero eta partidua gutxiago gelditzen dira. Argi Bergarak!

Jon Unamuno

Eguraldia bezain beltz dago Bergaren etorkizuna. Askok kostatzen zaio gol aukerak sortzea eta horrela puntu gutxi lortzen dituzte.

• SENIOR MAILAKO NESKAK



AINZANE AGIRRE

ALOÑA MENDI 1 - VASCONIA 0

Borrokatutako partidua irabazi zuen Aloñak. Lehen zatia hutsean amaitu zuten. Zelai erdiko jokoa nagusitu zen eta talde bakoitzak aukera bana izan zuen. Atsedendaldian oñatiarrek ideiak argitu zituzten eta partidua bila abiatu ziren.

Baloiaz jabetu ziren eta aukera gehiago sortu zituzten. Horrela, 27. minutuan Miren Intxaustik Aloñaren garaipena ekarri zuen gola sartu zuen. Vasconia saiatu zen partidua berdintzen, baina ondo defendatu zituzten hiru puntuak oñatiarrek.

• OHOREZKO KADETEAK

Horrelako partiduetan bihotzekoak eman diezazuke

ARRASATE	
4-3	
ALOÑA MENDI	

Asteleheneko Goienkaria

Emozio handiko derbia izan zen arrasatearrek eta oñatiarrek jokatu zutena. Nahiz eta lehen zatian etxeko taldea 0-3 aurreratu iregi, Sanchez eta Larrairen golei esker, bigarren zatian gauza asko eman zuen kontaktezko.

Euriarengatik asko kaskartu zen zelaia bigarren zatirako eta antza denez oñatiarrek indartu egin ziren. Izan ere, Asierrek eta Altunak sartutako golei esker 3-2koa ipini zuten. Gainera, Arrasateri jokalaria bat kanporatu zioten. Berdinketa heldu zitekeela sinistu zuten Arrasatekoek eta jokalaria atzera bota zituen etxeko taldeak. Hala ere, 7 minutu falta zirela, kontraeraso batean laugarrena sartu zuten etxekoek Larraeri esker. Bi minutu beranduago Aloñak hirugarrena sartu zuen Albertoren jokaldi eder batean. Partidu benetan zirrargarria.

• EMAKUMEAK F-8 KOPA

European jokaturako derbian antzuolarrek irabazi zuten

ALMEN ARIZMENDI	
3-5	
ANTZUOLA	

A.G.

Zapatuan Almenen jokatu zuten derbian erraz irabazi zioten antzuolarrek Almeni.

Zelaia oso egoera txarrean zegoen eta euria gogor egin zuen, baina gol asko ikusi ahal izan genituen.

Lehen zatian, goitik behera menperatu zuen Antzuolak Almen, eta bost gol egin zizkion.

Bigarren zatian etxekoak esnatu egin ziren eta markagailua estutu egin zuten hiru gol eginez, baina alperrik.

Asteburu honetakoa Kopako bigarren partidua zuten. Antzuolarrek, partidu hau irabazi ondoren, partidu bat galduta eta beste bat irabazita gelditzen dira sailkapenean. Almenekoak berriz, partidurik irabazi gabe jarraitzen dute oraindik. Sailkapeneko lehen postuan Almen UDA taldea dugu, oraindik partidurik galduta gabe dago ibarrekoko taldea.

• OHOREZKO MAILA

Laugarrenaren aurka ederki ibili ziren UDAko gazteak

UDA	
1-0	
SANTO TOMAS LIZEOA	

Jokin Etxebarria

Partidu guztian zehar nagusi izan ziren UDAko gazteak zapatuan. Aurkaria ez zen erraza, Santo Tomas Lizeoko gazteak sailkapenean laugarrenak zirelako, baina, Aretxabaletakoek partidu ona eskaini nahi zioten bere entrenatzaileari. Izan ere, Felix Recioen azken partidua zen UDAko gazteekin, preferente mailako taldearen entrenatzailea izango da eta aurrerantzean. Hala eta guztiz ere, lehen zatian etxekoek nagusitasuna ez zen gol bihurtu azken bi minutuetara arte. Orduan lortu zuten etxekoek gola. Donostiarrek aukera bakarra sortu zuten eta hau etxekoek golaren ondoren izan zen. Bigarren zatian berdintasun gehiago izan zen. Donostiarrek gora etorri behar izan zuten, eta aukerak bi taldeendako egon ziren. Hala ere, etxekoek ederki eutsi zioten markagailuari.



Ikusitakoak ikusita

Jasone Zabala

UDA TALDEAN GIROA NAHASTUTA DABIL

UDA taldea aipatu nahiko nuke aste honetan. Hasiera itxaropentsua izan zuen Neka Galanek entrenatzen zuen taldeak. Pasa den urteko lan ona errepikatzea ez ezik, hobetzea ere bazen helburua. Baina une honetan gauzak ez dabilta batere ondo. Batetik, emaitzek ez dute batere laguntzen, eta badirudi, aldagelako giroa momentu honetan ez dela egokiena. Bestalde, egoera hobetu nahian, Galan kargutik kendu dute eta Felix Recio ipini dute haren ordez.

Emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA			BESTELAKOAK		
Sailkapena	Punt.	J.	Emaitzak		
1. Tolosa	52	25	EHU-Zarautz	1-1	GAZTEEN OHOREZKO LIGA
2. Ordizia	50	25	Zestoa-Touring	2-0	Aretxabaleta-Sto.Tomas Lizeoa 1-0
3. EHU	49	25	Aloña M.-Aretxabaleta	2-0	Mondra-Zumaiaiko 1-2
4. Zarautz	43	25	Tolosa-Pasaia	5-2	LEHEN MAILAKO GAZTEAK
5. Trintxerpe	40	25	Anaitasuna-Mondra	2-3	Allerru-Bergara 3-5
6. Real Union	39	25	Real Union-Beti Gazte	3-1	Arrasate-Antoniano 1-3
7. Pasaia	35	25	Trintxerpe-Orioko	2-0	Soraluze-Aretxabaleta B Ariz. 1-2
8. Touring	35	25	Hondarribia-Urola	5-2	BIGARREN MAILAKO GAZTEAK
9. Mondra	34	24	Bergara-Ordizia	0-3	Eibartarrak-Bergara 1-0
10. Zestoa	33	25	Oiartzun-Mutriku	1-2	Gure Txokoa-Antzuola 1-2
11. Orioko	32	25	Hurrengoak		KADETEEN OHOREZKO MAILA
12. Hondarribia	31	24	Touring-Zarautz		Arrasate-Aloña Mendi 4-3
13. Anaitasuna	30	25	Aretxabaleta-Zestoa		Bergara-Eibar 3-2
14. Mutriku	29	24	Pasaia-Aloña M.		LEHEN MAILAKO KADETEAK
15. Aloña Mendi	28	25	Mondra-Tolosa		UDA Arizmendi-Mutriku 3-2
16. Aretxabaleta	27	25	Beti Gazte-Anaitasuna		BIGARREN MAILAKO KADETEAK
17. Urola	26	24	Orioko-Real Union		UDA Arizmendi-Añorga 0-3
18. Bergara	25	25	Urola-Trintxerpe		Eibartarrak-Bergara 2-4
19. Beti Gazte	23	25	Ordizia-Hondarribia		Antzuola-Urki 3-2
20. Oiartzun	15	25	Mutriku-Bergara		EMAKUMEZKOEN LIGA (IGOERA)
			EHU-Oiartzun		Aloña Mendi-Baskonia 1-0
					Reala-Bergara 12-0
					Intxaurdi-Almen Aretxabal. 4-1
					Luberri-Mondra 0-0
					EMAKUMEEN F-8 LIGA
					Bergara-Intxaurdi 2-6
					Elgoibar-Almen Aretxabaleta 3-0
					Almen Arizm.-Antzuola 3-5
					INFANTIL OHOREZKO MAILA
					Reala-Aretxabaleta Arizmendi 5-1
					INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA)
					Mariño-Bergara 0-5
					Trintxerpe-Aloña Mendi 0-5
					INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA)
					Arrasate Atsedena
					INFANTIL TXIKI (KOPA)
					Sanse-UDA Arizmendi 0-2
					INFANTIL F-8
					Ordizia-Arizmendi C 0-3
					Antzuola-Baskonia 5-2
					Zumaia-Arizmendi B 8-1
					Aloña Mendi-Bergara 0-3
					BIGARREN ERREGIONALA (KOPA)
Sailkapena	Punt.	J.	Emaitzak		
1. La Salle	10	4	Zestoa-Antzuola	2-0	
2. Lasarte Oria	10	5	Urki-Amaroz	3-3	
3. Antzuola	7	4	Lasarte Oria-Donibane	4-0	
4. Urki	6	5	La Salle	Atsedena	
5. Amaro	5	4	Hurrengoak		
6. Zestoa	3	4	La Salle-Antzuola		
7. Donibane	0	4	Amaroz-Zestoa		
			Donibane-Urki		
			Lasarte Oria	Atsedena	

Eskola kirola

LEINTZ BAILARA

Gazteluondokoen partiduak ikustera gazte asko hurbildu zen Iturripera

Saskibaloia, areto futbola eta futbol 8 izan ziren zapatu goizean egin ziren kirolak

Partidu gehienak Iturripen jokatzeko ziren, eta talde mistoak aritu ziren jokatzeko

Musakolan, Ibarren eta Eskoriatzan ere izan ziren gaztetxoek partiduak

Jasone Zabala

Jardunaldia goizeko bederatzietan hasi zen Iturripekikiroldegian. Lehen partidua saskibaloia izan zen, Arizmendi eta Bergarako Ipintzako nesken taldeen artean.

Ondoren, areto futboleko partiduak jokatzeko hasi ziren hamarretan. Gazteluondoko talde ugari bildu ziren, maila ezberdinetako neska eta mutikoak, eta batzuk partidua jokatzeko zeuden bitartean, hainbat neska-mutil gelakideak animatzeko asmoz gerturatu ziren bertara, tokatzen zitzaiena baino ordubete lehenago.

Bestalde, Ibarren zelaian, euripean jokatu zuten gaztetxoek 8ko futbola. Musakolako kiroldegian ere izan ziren partiduak, baina jende gehienak Iturripen bildu zen, partidu gehienak bertan izan zirelako.

TALDE MISTOAK HAINBAT PARTIDUTAN

Neskez eta mutilez osatutako taldeak ere egon ziren. Ondo moldatu ziren euren artean, nahiz eta ostikoren bat edo beste ere ikusi ahal izan genuen ume batzuen partetik.

Euria astebete gehiagoz protagonista izan arren, ederki asko moldatu ziren koordinatzaileak, inguruko hainbat kiroldegitan partiduak antolatuz.



AINZANE AGIRRE

Ipintza. Juan, Noemi, Mariñe, Elena, Itziar, Miren, Ana, Uxuri, Ane, Maite eta Amaia.



AINZANE AGIRRE

Arizmendi. Ane A., Irune, Miren, Olatz, Irati, Aitziber, Maialen, Ane E., Ane U. eta Ane G.



AINZANE AGIRRE

Santa Teresa. Nerea, Ander, Asier, Markel, Julen, Oihan, Naia, Jone, Aitor R., Mikel, Ander, Aitor M., Nerea, Laura eta Unai.



AINZANE AGIRRE

Gazteluondo. Eneko, Aritz, Mikel Z., Aitor, Ander, Lorea, Iker, Andoni, Mikel A., Martxel, eta Markel.

• HORRELA IKUSI DUTE GAZTETXOEK



ANE, NEREA ETA MARIA |
GAZTELUONDO 4B

“Guri gehien saskibaloia eta futbola gustatzen zaizkigu. Gaur oso gustura etorri gara gure lagunekin jolastera, eta gainera gelako mordo bat gaude bertan”.



EIDER ETA MAIDER |
SAN MARTIN

“Futbola gustatzen zaigu gehien. Pozik etortzen gara, eta gaur gainera, lagun asko etorri dira”.



LIDE ETA MADDI |
GAZTELUONDO 4B

“Pozik egiten dugu kirola. Guztiak ditugu gustuko, baina gehien behar bada futbola”.



SABIN ETA ADRIAN |
SAN MARTIN

“Gelakideak gara, eta eskolako atsedendietan ere elkarrekin jolasten dugunez, pozik etortzen gara”.



JULEN, ANTTON ETA ESTEBAN |
SAN MARTIN

“Futbola dugu gustukoaren, baina saskibaloia ere gustatzen zaigu. Gaur gainera, gurasoak etorri dira, eta gol asko sartzea espero dugu”.

IRUDITAN



Momentu askotan, baloia jokariak baino azkarrago ibili zen alde batetik bestera.



Nork joko ote du baloia lehenago?



Modu askotan har daiteke atsedean, eta gaztetxo honek etzanda ikusi zuen gelakideen partidua.



Neska honek baloiarekin duen trebezia erakutsi zuen.



MIREN, AMAIA ETA MIREN |
GAZTELUONDO 4B

“Gaur futbolean jolastuko dugu, baina saskibaloia da gehien gustatzen zaiguna. Gelako lagun denak etortzen gara eta oso gustura ibiltzen gara”.



OSKAR ETA ION |
GAZTELUONDO 4A

“Goizean jaikitzea asko kostatzen zaigu, baina eskolara joatea baino hobea da hona etortzea jolastera”.



UNAI ETA JULEN |
GAZTELUONDO 4A

“Barruan baino, nahiago izango genuke kanpoan jolastea. Lagunekin gaudenez pozik etortzen gara”.



MIKEL ETA MARKEL |
GAZTELUONDO 4A ETA 4B

“Nik, Markelek, Mikelen aurka jolastuko dut partidua, eta gol asko sartzea espero dut”.



MIKEL, XABI ETA IOSU |
GAZTELUONDO 4A ETA 4B

“Gehien futbola gustatzen zaigu, baina beste edozein kiroletan ere pozik aritzen gara. Gaur elkarren kontra daukagu eta gol asko sartu nahi dugu”.

• EUSKADIKO TXAPELKETA

Garaipena gertu baina orain ere huts bergararrek

Partidu guztian zehar berdinduta joan ziren arren, azken minutuetan huts egin zuten



AINTZANE AGIRRE

Zapatu honetan ere asko sufritu zuten bergararrek, baina garaipena ez zen etxean gelditu.

BERGARA

27-30

EHU

Bergara | Uribe (2), Cabo (6), R. Sanchez (3), R. Pozo, Aldanondo (12), Unamuno, Delgado, Mujika (1), Plazaola (2), Iñurrieta, Zanguitu, Ugartetxea eta M. Pozo.

EHU | G. Aurrekoetxea, Manzanedo (1), Barturen (5), S. Aurrekoetxea (9), Aniel-Quiroga (7), Arrien, Marcos, Asensio, Zuinga, Bordegarai (1), Segura, Mardaras (4) eta Lopez de Araya (3).

Bost minuturo markagailua: 1-3; 4-4; 5-8; 7-9; 11-12; 13-15; 16-18; 18-20; 20-23; 21-23; 24-28; 27-30.

Jasone Zabala

EHU talde bizkaitarra izan zuten aurkari joan den zapatuan Lan-derren mutilek.

Sailkapenean erdialdean daude bizkaitarrak, eta azken partiduetan bergararrek erakutsitako joko onarekin, denboraldiko bigarren garaipena lortzeko aukera ezin hobea zuten.

Orain arteko partidu guztietan egin duten bezala, hasiera ona eman zioten etxekoek partiduari, intentsitate askorekin, bai erasoan eta baita defentsan ere, baloia ongi mugituz. Lehen zatian, kanpotarrek izandako errentarik handiena hiru golekoa izan zen, eta atsedendira 13-15eko emaitzarekin joan ziren. Bazirudien, partidu estua izan-

go zela, baina ez zen hala izan, eta betiko hutsak egin zituzten.

BIGARREN ZATIAN EZIN

Bigarren zatiaren hasiera lehen zatia bezalakoa izan zen, baina 15. minututik aurrera, garaipena lortzeko nahi horrek etxeko hutsak ekarri zituen; baloiak galtzen hasi ziren, golak ezin sartuz, eta bizkaitarrei kontraera-

so aukerak emanez. Kanpokoek errentarik handiena 55. minutuan lortu zuten, lau goleko errenta, hain zuzen ere, 24-28ko emaitzaz. Azken bost minutuak ez ziren nahikoa izan Bergarak partiduari buelta eman ahal izateko, eta galdu egin zuten.

Bergararren aldetik, Aldanondo izan zen golegile nagusia; 12 gol egin zituen.

• SENIOR NESKAK



AITOR LIZARRALDE

VERKOL ALOÑA 19 - SAN ADRIAN 24

Erraztasun gehiegi eman zituen Verkol taldeak eta San Adrianek ondo aprobetxatu zituen bere aukerak. Beharbada Erika, Ainhoa eta Olatzen bajak ere igarri ziren. Lehen zatian erabat galduta egon zen etxeko taldea. Hegaletatik saiatzen ziren behin eta berriro baina atezain bilbotarrak nahiko erraz gelditzen zituen baloiak. 7-15 bukatu zen lehen zatia. Bigarren zatian erabat aldatu zen. Etxekoak puntu batera jarri ziren sei minutu faltan. Behintzat berdinketa lortu zezaketela uste izan zuten, baina bilbotarrek ez zuten hori gerta zedin laga.

• BIGARREN TERRITORIALA



AITOR LIZARRALDE

ARRASATE 24 - PULPO 27

Partidu gogorra jokatu zuten arrasatearrek atzo zumaiarren aurka. Espero zen partidu gogorra izatea, Zumaiko taldea lehena baita sailkapenean eta irabaziz gero, mailaz igotzen ziren matematikoki. Etxekoak, berriz, hirugarren zeuden sailkapenean. Borrokatua izan zen partiduak, eta baita borroka askorekin. Gainera, epaileek ez zuten baterre lagundu jokoa lasaitzen. Etxekoek burua galdu zuten azken minutuetan, eta Pulpokoek, esperientzia gehiago erakutsiz, garaipena eraman zuten Zumaiara.

• LEHENENGO NAZIONALA

Arrikruztek 24-20 galdu zuten Loian

A.G.

Zaila gertatzen zaio Arrikruzte Oñatiko Kobak taldeari etxetik kanpo irabaztea. Biainen geldituek partidua nahiko orekatua egotea ekarri zuten, baina azkeneko minutuetan Urdanetak hobeto aprobetxatu zituen kanporaketak.

• LEHEN TERRITORIALA

Ormaiztegi- pazientzia irabazi AGRk

A.G.

Azkeneko emaitza 30-34koa izan zen, eta sailkapenean hirugarren jarraitzeko balio die arrasatearrei. Partidu gogorra izan zen atzokoa, baina pazientzia handia izan zuten AGRkoek eta ez zuten bururik galdu.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILAKO ESPAINIAR LIGA

Urdaneta-Arrikruz Oñati 24-20

SENIOR MAILAKO EUSKADIKO TXAPELKETA

Bergara-EHU 27-30

LEHEN TERRITORIALA

Ormaiztegi-AGR Arrasate 30-34

BIGARREN TERRITORIALA

Arrasate-Pulpo 24-27

Aloña Mendi-Urola 36-17

Bergara-Donibane 31-28

SENIOR MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-San Adrian 19-24

GAZTE MAILAKO MUTILAK

Gatz Museoa Jakion Atsedena

GAZTE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-Askartza 13-26

Bergara-Zahara Kafetegia 26-20

GAZTE MAILAKO NESKEN GIPIZKOAKO TXAPELKETA

Arrasate-Zarautz 4-34

Bergara-Zahara Kafetegia 26-20

KADETE MAILAKO MUTILAK

Aloña Mendi-Bergara 25-20

KADETE MAILAKO NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-Askartza 25-20

INFANTIL MUTILAK

Leizaran-Arrasate 20-12

BKL-Aloña Mendi 19-28

INFANTIL NESKAK

Aloña Mendi Atsedena

• SENIOR MAILA

Egundoko jipoia Interrek Eskoriatzari

Hasiera-hasieratik huts dezente egin zituzten erasoan eskoriatzarrek, eta minutuko ia puntu bat bakarrik sartuta ezin daiteke irabazi

ESKORIATZA

45-69

INTERNACIONAL

Eskoriatza | Usabiaga (7), Laborda (9), Balzategi, Etxeandia (4), Sebastian (3), Murillo (13), Soriano, Expositi (4), Etxebarria (3) eta Alarcia (2).

Internacional | Muñoz (4), Martín (8), Liceaga, Etxebarria (21), Sein, Rodríguez (9), Besne, Velasco (6), Orio (4), Ezkurdia (5) eta Aboy (12).

Laurdenetako emaitzak | Lehenengo laurdena 8-14. Bigarren laurdena 18-32. Hirugarren laurdena 31-56. Laugarren laurdena 45-69.

Jokin Etxebarria

Azken aldian Eskoriatzako neskei asko kostatzen zaie partidu bat irabaztea. Eta hori ez da txarrrena; denboraldi hasieran ematen zuten irudi ona galdu dute. Partiduak galdu egin daitezke, baina zapatuan bezalako itxura ematen bada, arazotan sar daitezke Eskoriatzako neskek. Egia

da jokalaria asko falta dituztela, jokalaria garrantzitsuak gainera, eta egia da jaitziera fasea jokatu beharrek –denboraldi nahiko txukuna egin ondoren– jokalaria motibaziorik gabe uzten dituela. Baina gutxienez itxura gorde behar da.

Zapatuan ez zen gorde, eta egundoko jipoia jaso zuten. Erasoan baloi pila bat galdu zituzten, eta bost minutu pasa arte laurden guztietan, ia ez zuten saskiratzen. Hori ez da normala, eta hurrengo partiduetan asko hobetu beharko dute maila galdu nahi ez badute.

PARTIDU GUZTIAN ATZETIK

Lehen laurdena gaizki hasi zuten etxekoek. Baina laurden hone-tako azken minutuetan saskira begira asmatzen hasi ziren, eta hori dela eta, Internacional taldekoek lortutako abantaila ez zen handiegia izan. Baina bigarren laurdena ere oso gaizki hasi zuten Fernando Rasoren neskek. Lehen laurdeneko huts berdina egin zituzten. Defentsan nahiko ahul eta erasoan baloiak etengabe galtzen. Hala ere, laurden



AITOR LIZARRALDE

Ahazteko moduko partidua izan zen zapatukoa.

amaiera aldera defentsa zerbait hobetu zuten, eta kontraerasoan irteteko parada izan zuten, abantaila pixka bat murriztuz.

Baina hirugarren eta laugarren laurdenetan ere berdintsu ibili ziren etxekoak. Teorikoki taula azpian zuten nagusitasuna ez zuten jakin aprobetxatzen. Erasoan opari pila bat egiten jarraitu zuten, eta kanpokoek ez

zituzten alferrik galdu opari horiek. Gutxika-gutxika abantaila handitzen joan zen, eta etxekoek defentsak aldatu arren, ezinean jarraitu zuten.

Azken laurdena izan zen etxekoen onena, baina gehiago kanpokoak erlaxatu zirelako etxekoek egindako lan onagatik baino. Askok hobetu beharko da hurrengo partiduan.

Sufrituta irabazi zuten etxekoek

ALOÑA MENDI

75-73

CANDY BERGARA K.E.

Aloña Mendi | Madariaga (10), Otamendi (5), Iker Zabaleta (17), Iñigo Zabaleta (4), Ugarte (5), Blanco (19), Arregi (2), Garcia, Anton (3), Mendiola eta Madinabeitia (10).

Candy BKE | Murillo (6), Gonzalez, Hernandez (9), Morais (4), Arteaga (2), Blazquez (9), Beistegi (9), Ugarte, Alonso (4), Iñarra (6), Larrañaga (10) eta Eraña (14).

Laurdenetako emaitzak | Lehenengo laurdena 22-21. Bigarren laurdena 39-36. Hirugarren laurdena 58-53. Laugarren laurdena 75-73.

Jokin Etxebarria

Derbyen berdintasuna berriz ere agerian geratu zen oñatiarren eta bergararren arteko partiduan. Eta nahiz eta azken minutura etxekoak zortzi puntutako abantailarekin heldu ziren, Aloña Mendikoek ez zuten garaipena ziurtzat eman markagailuko bozina entzun arte.

BERDINTASUNA NAGUSI

Etxekoak partidu osoan markagailuan aurretik joan arren, diferentziak ez ziren handiak izan; azken laurdena arte lau puntutakoa izan zen handiena. Etxekoak aurretik jartzen ziren erasoan egindako barneraketen



AINZANE AGIRRE

Berdintasuna izan zen nagusi zapatuko derbyan.

bidez, baina Candykoek segituan lortzen zuten abantaila murriztea.

Azken laurdenean, etxekoak Blancoren hirukoien bidez lortutako abantaila txikia handitzen

hasi ziren gutxika-gutxika. Azken minutura zortzi puntuko abantailaz heldu ziren, baina erlaxatu egin ziren. Bergarakoek, abantaila murriztu zuten eta, ia partidua irabazi azken erasoan.

• LEHEN MAILA

Mugarri Alkesa geldiezin dabil azkeneko partiduetan

CALAHORRA

72-83

MUGARRI ALKESA

Asteleheneko Goienkaria

Joan den urtean antzera, bigarren txanpa bikaina egiten dabilta Zurutuzaren mutilak. Denboraldi hasiera kas-kar baten ondoren, badirudi martxa hartu dutela, eta joan den urteko markak hobetzeko nahia dutela. Dagoeneko zazpi partidu dira jarraian irabazi dituztenak. Gamarra, Kintana eta konpainia fin dabilta erasoan, eta defentsan asko hobetu dute.

Asteburu honetan ere oso partidu ona jokatu zuten Kalagorin. Talde moduan jokatu zuten, eta arrasatearrek talde moduan jokatzeko badute, ia geldiezinak dira. Ez zen partidu erraza izan, hala ere. Errioxarrek ez dituzte puntu asko jasotzen euren kantxan, eta hori erakutsi nahi izan zieten Mugarrikoei defentsa gogor batekin. Hala eta guztiz ere, arrasatearrak aurretik joan ziren markagailuan hasieratik, eta eskerrak partidu amaierara puntu diferentzia handiarekin heldu ziren, “bestela ziur partidua galduko genuela” adierazi zigun Gamarrak. Izan ere, epaileen lana ez zen batere ona izan, eta errioxarrei nahikoa lagundu zieten.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA

Calahorra-Mugarri Alkesa 72-83

SENIOR MAILAKO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Aloña Mendi-Candy BKE 75-73

GAZTE MAILAKO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Mugarri Alkesa-At. SS 71-55

Tolosa-Aloña Mendi 105-24

Araneta-BKL 55-41

KADETE MAILA

Lacor-Internacional 34-101

Aloña Mendi Atsedena

Mugarri Alkesa-Inter 63-36

NESKEN BIGARREN MAILA

Eskoriatza-Internacional 45-69

GAZTE NESKAK

Internacional-Aloña Mendi 53-25

Eskoriatza-BKL 32-33

KADETE NESKAK

At. SS-Bergara 54-40

Cafes Aitona-Eskoriatza 51-23

Xakea

• DEBAGOIENENKO ESKOLARTEKO XAKE TXAPELKETA



AITOR LIZARRALDE

Partidu gogorrak jokatu zituzten pasa den zapatuan derbian.

Debagoieneko 6 gazte Gipuzkoako txapelketara

Euskal ligaren barruan, Arrasate eta Aretxabaletaren artean jokaturako derbian, Arlutzek irabazi zuen

Jasone Zabala

Atzo, Musakolako kiroldegian, Debagoieneko Eskolarteko Xake txapelketa jokatu zen. Guztira, 80 ume inguru bildu ziren, eta Eibar eta Azkoitiko gaztetxoak ere txapelketa berean parte hartu zuten. Hiru maila egon ziren: infantil, kimu eta benjaminak.

Infantil eta kimu mailako lehen hirurak Gipuzkoako txapelketarako sailkatu ziren. Hauek izan ziren irabazleak: infantiletan, lehena, Asier Etxagibel arrasatearra izan zen, biga-

rrena Diego Olmo eibartarra eta hirugarrena Edu Olabe, hau ere eibartarra. Kimu mailan: Hector Sanchez azkoitiarra izan zen lehena, Juanma Ruiz oñatiarra bigarrena eta Andoni Gomez arrasatearra hirugarren. Sei mutiko hauek, datorren hile-

an Donostian jokatu den Gipuzkoako txapelketarako sailkatu dira. Eskolaka hauek izan ziren txapeldunak: infantiletan, Oñatiko Mikel Aozaraza ikastola; kimu mailan, Eibarko Mogel ikastolak irabazi zuen eta benjaminetan Oñatiko Santa Eskolastikak.

DERBI GOGORRA

Bestalde, zapatuan, Arrasatek eta Arlutzek jokaturako derbian, bigarrenak irabazi zuten 2,5 puntu lortu ondoren. Arrasatekoek 1,5 puntu lortu zuten.

Arrasatearrek borroka asko egin beharko dute mailari eusteko

• IGERIKETA

IBARREKO IGERILARIAK EDERKI ARITU ZIREN MUSAKOLAN

Zapatuan, Bergarako Igeri Elkarateak antolatuta, kirol zehaztasuneko ligaren barruan, 4. jardunaldia ospatu zen. Bertan, Azkoitiko Zubiaurre taldeak, Oñatiko Aloña taldeak, Bergarako taldeak, Legazpikoak eta Eibarko Ur-bat taldeek hartu zuten parte. Txapelketa kimu mailan egin zen. Hiru frogatan aritu ziren: 200 m estiloetakoan, 100 m bizkarra eta 4x50 erreleboak tximeleta erara. Ibarreko taldeetako gazteak ederki aritu ziren.

Bosgarren jardunaldia datorren apirilaren 23an egingo dute Azeptian.



AITOR LIZARRALDE

• PERTIKA JAUZIA



ASTELEHENKO GOIENKARIA

JONATHAN PEREZEK EZ ZUEN ZORTERIK IZAN

Espainiako txapelketarako sailkatu bai, baina lehenengo altueran huts egin zuen eta ezin izan zuen aurrera jarraitu. Hala ere, pozik agertu zen Jonathan Perez. "Egun txarra izan dut, baina honaino heltea sari bat da niretzako. Datorren urtean ikusi beharko".

Labur

Arrasate Errugbi Taldeak lehen mailan jarraitzea lortu du

Arrasatek liderraren -Gernikaren- aurka jipoi galanta jasan zuen asteburuan, baina Zarautzek Bilboren aurka galdu eta gero arrasatearrak geldituko dira lehen mailan, zarautzarrak baino puntu bat gehiago dute eta sailkapenean. David Jauregiren esanetan: "justu-justu bada ere, gutxienez lortu dugu denboraldia sailbatzea".

Bertan salgai

ASTELEHENKO
Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

<p>Antzuola:</p> <ul style="list-style-type: none"> •Altzarte okindegia •Martin okindegia <p>Elgeta:</p> <ul style="list-style-type: none"> •Kioskoa <p>Bergara:</p> <ul style="list-style-type: none"> •Bolintxo okindegia •Ogizun okindegia •Konde okindegia •Olabe okindegia •Mizpildi okindegia •Plazako Kioskoa •Txurrerua Kioskoa <p>Arrasate:</p> <ul style="list-style-type: none"> •Eroski merkatal guneko prentsa txokoa •Balantzategi kioskoa •Portaloiko kioskoa •Usue paper denda •Bolintxo Okindegia •Maalako okindegia •Kurruxko okindegia 	<p>Aretxabaleta:</p> <ul style="list-style-type: none"> •Errasti kioskoa •Ibarra estankoa <p>Eskoriatza:</p> <ul style="list-style-type: none"> •Dorleta liburudenda <p>Leintz Gatzaga:</p> <ul style="list-style-type: none"> •Labidea <p>Aramaixo:</p> <ul style="list-style-type: none"> •Plazako kioskoa <p>Oñati:</p> <ul style="list-style-type: none"> •Haritza Kioskoa •Ibarrondo Kioskoa •Eskolatxo okindegia •Arantxa okindegia •Irizar okindegia •Ogibari okindegia •Olakua okindegia •San Lorentzo okindegia •Errota okindegia
--	---

Pilota

• ALEBIN MAILA

Bergara Gipuzkoako finalerako sailkatu zen

Hasiara txarra izan zuten arren, Bergarako hirukoteak buelta eman zion partiduari azken txanpan

Jasone Zabala

Bergarako pilotariak, arrasatearren aurka jokatu zuten Deba goieneko finala Aretxabaletako frontoian, eta irabazi egin zuten.

Partidua ez zen batere ondo hasi bergararrendako, eta arrasatearrak agintzen hasi ziren markagailuan. Arrasatearrak jaun eta jabe izan ziren lehen hiru jokoetan; izan ere, bergararrak ez zebiltzan batere fin, eta atzeko koadroetan borroka handia zegoen. Bergararrak, 3 eta 1 hurbildu ziren. Arrasatearrei, 2 joko baino ez zitzaizkien gelditzen irabazle izateko, baina Bergararrek ez zuten etsi.

PARTIDUARI BUELTA

Badirudi Bergarako hirukotea esnatu egin zela, eta joko polita eginez bigarren jokoa beraiendako izan zen. Gauzak estu zeuden, eta Arrasatearrekin 4 eta 2koa egin zuten.

Nekearen eta urduritasunaren eraginez, Arrasateko mutikoek ez zioten pilotari hasieran bezala ematen, eta Bergarak lau



AITOR LIZARRALDE

Emozioz beteriko finala izan zen gaztetxoek jokatutakoa.

jokotara berdindu zuen partidua. Azken jokoa benetan gogorra izan zen. Puntutan 40na berdindu zuten, eta berdinketa

hausteko lanean, Bergarak zorte gehiago izan zuen, eta 5 eta 4ko emaitzaz irabazi zuen Deba goieneko finala.

Txirrindularitza

Aloña Mendiko txirrindularitza sailak bere talde guztiak aurkeztu ditu

Jon Unamuno

Oñatin txirrindularitzak bizitza luzerako duela ikusi zen zapatuan Etxe-Aundin. Alebinak, infantilak, kadeteak, jubenilak eta sub 23ko taldeak daude eta guztira 40 txirrindulari dira. Aipagarria da aurten jubenil mailan Antzuola, Bergara, Arrasate eta Oñatiko gazteek osatuko dutela taldea.

TKV LOGISTIKA TALDEA

23 urtez azpikoen taldean 16 txirrindularik parte hartuko dute. Bailarako bi txirrindularik defendatuko dituzte TKV taldearen koloreak: Kepa Varela eta Unai Arantzabal bergararrek.



AITOR LIZARRALDE

Ilusioz beterik zeuden txirrindulari guztiak aurkezpenean.

Mendi ibilaldia



JOXE MARI ITURBE

Paisaia politik ikusi ahal izango dituzte ibilaldian parte hartzen dutenek.

Eguraldi txarragatik ez zen jende asko animatu

A.G.

Antzuolako Arrola mendi elkar-teak antolatuta mendi ibilaldia izan zen atzo. Zailtasun handirik gabeko ibilbidea izan zen eta bost bat ordutan herri inguruak eta bide berriak ezagutze-ko aukera izan zuten bertan parte hartu zutenek. Ibilaldiko zailtasun txiki bakarra Arrolako aldapa izan zen.

Datorren igandean, bigarren ibilaldi bat egingo dute. Hori ere zailtasun handirik gabekoa izango da; Irimoko aldapa izango da parte hartzen dutenendakko zailtasun bakarra.

Lehen ibilaldian jende gutxi animatu da, eta antolatzaileen nahia da bigarreneko jende gehiago batzea. Domekan abiatuko dira, 08:30ean, Antzuolako plazatik.

Borroka librea

Maider Unda aramaioarra zazpigarren aldiz Espainiako txapeladun

Asteleheneko Goienkaria

Asteburu honetan Gijonen jokatutako borroka libreko Espainiako txapelketan garaile irten da Mainer Unda aramaioarra. Lehenengo borrokan sufritu egin zuen Madrileko aurkariarekin, baina finala errazago irabazi zuen, Kanariar Uharteetako aurkariarekin borroka errazagoa izan baitzen.

Dagoeneko zazpigarren aldiz da jarraian Mainerrek Espainiako txapelketa irabazten due-



na, eta Atenasko Olinpiar Jokotan parte hartu ezin izanaren samina beste txapelketa batekin kendu ahal izan du.

Labur

Leire Ezpeleta arrasatearra Euskadiko lehena Baqueira Bereten

Joan den asteko postuak aldatu egin dira aste honetan. Aurrekoan, lehena Isa Casado izan bazen, oraingoan Isari bigarren postua egokitu zitzaion, eta lehena Leire Ezpeletari. Eguraldiak lagundu ez arren Espainiako seigarren eta zazpigarren heldu ziren bi arrasatearrak.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Kresala taldearen emanaldian 450 bat lagun batu ziren, Oñatiko kiroldegian | 24
- Isabel Ricok irabazi zuen zapatuan III. Cante flamenkoko jaialdia, Arrasaten | 25

Txirri, Mirri eta Txiribiton, Arrasateko Amaian egongo dira gaur eta bihar | 27

PUNKI ZIRIKATZAILEEN GAUA JAM ARETOAN



AITOR LIZARRALDE

Ordu eta erdiko kontzertua egin zuen Toy Dolls taldeko hirukoak Bergarako Jam aretoan joan zen egubakoitzean.

BELAR TXARRA EZ DA AISE GALTZEN | BI ORDU ETA ERDI PASATXO ARITU ZIREN BI TALDEAK JAM ARETOKO TAULA GAINEAN

Jolas egiteko asmoz atera ziren eta entzuleek oso ondo pasatu zuten

Hasierako talde legez, Gatillazo aritu zen egubakoitzean Jam aretoan. Evaristoren talde berriak kantu berri larregi jo zituen. Toy Dolls taldeak espektatibak bete zituen, laburregi aritu arren

Marijo Deogracias

Our last album? horrela du ize-na The Toy Dolls talde ingelesaren azkeneko lanak eta hori aurkeztera etorri ziren joan zen egubakoitzean Bergarako Jam aretora. Ez zen euren lehenengo bisita ibarrera; eta Jamen egon ziren entzuleetarik askok zituzten gogoan aurreko bisitak: "betiko legez aritu dira, oso dibertigarriak dira eta kantu guzti-guztiak ezagunak izan dira".

The Toy Dolls taldearen emanaldiaren aurretik Evaristoren Gatillazo taldea entzuteko aukera izan genuen. Kanta berriak ziren, ezezagunak askorentzat, eta horregatik, agian, hotz samar egon zen publikoa. Hala ere, sen-

do aritu ziren Gatillazokoak eta ordu beteko emanaldi txukuna eskaini zuten. Cicatriz taldeari omenaldia egin nahi izan zion Gatillazok *Aprieta el gatillo* kantarekin. 23:20 aldera trikitia jarri eta taula gainetik alde egin zuten. Evaristok ez zuen "Agur" esan, La Pollarekin egiten zuen legez.

EUROPAKO ITUNA GOGOAN?

Atzoko hauteskundeei keinua egin nahian, edo sasoi bateko heavyen lepotik barre egiteko asmoa izango ote zen? Europe talde sasi-heavyaren *The final countdown* abestiaren doinuarekin ekin zioten emanaldiari -amaitu ere harekin egin zuten.

Goizaldeko ordu bata jotzeko zeudela *When the saints go mar-*

Fitxa teknikoa

• TALDEAK

Gatillazo: Evaristo, ahotsa; Tripi, bateria; Txiki eta Osoron guitarra jotzaileak eta Xabi, baxu jotzailea.

The Toy Dolls: Olga, ahotsa eta gitarra jotzailea; Tom Goober, baxu jotzailea eta Dave The Nut, bateria jotzailea.

• JENDE KOPURUA

1.400 bat lagun. Sarrera ia guztiak agortu ziren.

• ARGIA ETA SOINUA

10.000 watio argitan eta 48.000 soinu. Teknikari propioak ekarri zituzten.

ching kantu ezaguna jo zuten eta publikoa erabat zoratu zen: jauzika eta besoak altxaturik abestu zuen kanta.

Gatillazo taldea ondo samar entzun zen arren, The Toy Dollsekoen soinua hobetu zitekeen, nahiko baxu entzun baitzen. Entzule batek esan zigun legez, "gitarra jotzen birtuosoak ez dira, baina ozenago entzun izanak ez liguke kalterik egingo". Hala ere, emanaldi oso dibertigarria egin zuten.

AZKENA OTE?

Gogoratu zuten euren azkeneko tourra zela; ez dakigu horrela izango den, baina oraindik ere luzerako soka dutela esango nuke nik.

PUNKI ZIRIKATZAILEEN GAUA JAM ARETOAN

• KONTZERTUA IRUDITAN



EVARISTO-GATILLAZO

Ordu beteko emanaldia egin zuten Gatillazo taldekoek; Evaristok zuzentzen duen talde berria. Hainbeste projektutan sartuta dabil La Polla oiha, jendea nahasi samar duela eta agian, horregatik, egubakoitzeko emanaldian jendea motel samar aritu zen kontzertua entzuten. Evaristok sasoiko jarraitzen duela erakutsi zuen eta proiektu berriei beldurrik ez diela. Gatillazok Evaristoren betiko doinuak jo zituen kanta berrien jantziakin, baina Cicatriz taldeari keinua egiteko aukera ere izan zen *Aprieta el gatillo* abestiarekin. Sumatu egin zen jendeak kantuak ez zekizkiela, baina hala ere, sendo aritu ziren taldean Evaristo eta lagunak.



JAM JENDEZ LEPO

Sarrerak agortu zirela bagenekien eta jendez lepo egongo zela Bergarako Jam aretoa. Eta horrela izan zen, jendeari dagokionez; ez, ordea, sarrerei dagokienez. Jakin genuenez, Eibarren salgai jarritako batzuk itzuli egin zituzten eta, azkeneko orduan ere, hainbat saldu ziren Jameko leihatilan.

Aretoan itzelezko beroa egiten zuen eta han egin zen ke lainoa ere izugarria izan zen.

Gatillazo taldearekin ez zen jende askorik animatu jauzi egitera; Toy Dolls taldearekin, oster, hantxe ibili ziren beheko eta goiko aldeko guztiak jauzika eta txaloka; txaloka bateria-jotzailearen aginduetara gainera!



OLGA-TOY DOLLS

Michael Algar du izena, baina Olga da beti erabili izan duen izena. Txikiea ahoan zuela hasi zuen kontzertua eta behin eta berriz ahoratu zituen; helburua ahoan ahalik eta txistu gehien egitea jendeari botatzeko. Baina egubakotzean nahiko *formal* aritu ziren zentzu horretan Toy Dollseko kideak. Dave The Nut bateria jotzailea ere *showman* lanetan aritu zen jendea mugiarazten eta Tommy Goover baxu jotzaileak jokoa jarraitu zion Olgari.

Kontzertu hasierako gorbatak kenduta alkandora barik amaitu zuten kontzertua; tartean burusoilaren ileordea eta deabru-sardea ere atera zituen Olgak.

• ZER IRUDITU ZAIZUE KONTZERTUA?



JESUS, MAPI ETA PEIO | LIZARRA

“Oso-oso ondo egon da kontzertua”, esan ziguten hiru nafarrek poz-oz. “Evaristok denbora laburrez jo du eta kanta guztiak Gatillazorenak zirenez ezezagunak genituen; hortaz jendeak ez du dantza askorik egin”, azaldu zigun Peiok. “Sekulakoa izan da”, esan zigun Jesusek. Hirurek entzunak zituzten Toy Dolls taldekoak “beti entzun izan dugu taldea eta behin ikusteko aukera izanda aprobetxatu egin dugu”, esan zigun Mapik.



SERGIA ETA MARTA | BARAKALDO

Gatillazo hasieran “pixka bat motel” aritu zela esan zigun Martak; “motel hasi dira, baina... Eskerrak gero animatu diren!”. Toy Dolls taldea ere oso ondo egon zela esan ziguten. “Kontzertua izerditan amaitu dugu, beraz, ondo egon dela esango dugu”. Soinua baxu samar entzuten zela komentatzerakoan: “agian bai... baliteke Gatillazo altuxeago entzun izana. Bai, indartsuago entzutea hobe izango zitekeen”.



JAVI, TXUS ETA JAVI | GASTEIZ

“Kontzertua ondo egon da, baina laburra iruditu zaigu” esan ziguten gasteiztarrek. “Hala ere, Toy Dolls taldekoek bikainak direla erakutsi dute berriz ere, eta ikuskizuna ematen dutela erakutsi digute. Jai itzela izan da eta oso ondo *enroilatzen* dira” esan ziguten hiru lagunek.

Gatillazo taldeagatik galdetuta: “Evaristo hainbeste talderekin... Dagoeneko ez da gauza bera”.



LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA

Begietako mikrokirurgia:

Kataratak: Miopia / Hipermetropia.

Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatuak

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

Kresala taldeak harritu egin zituen ikusleak

Donostiako dantza taldeak 'Marixe, panpinen baleta' ikuskizuna egin zuen 450 ikusleren aurrean Zubikoan

A.G.

Donostiako Kresala dantza taldeak emanaldia egin zuen zapatuan, Zubikoa kiroldegian; *Marixe, panpinen baleta* ikuskizuna, hain zuzen.

Errekalde Herri Eskolak antolatu zuen emanaldia, 20. urtemuga ospatzeko ekitaldien barruan. Ikuskizunak, urteu-

rrena ospatzeko ekitaldi sortari amaiera eman zion. Ikusle ugari joan zen, 450 inguru, eta gustura egon ziren panpinen baleta ikusten. Izan ere, Kresala taldeak egiten duen ikuskizuna osoa da: janzkera eta makillaje ederraz gain, egiten dituzten dantzek eta erabiltzen dituzten txotxongiloek erakar-garri egin dute ikuskizuna.



AINZANE AGIRRE

Dantzarien jantziek eta makillajeak asko jantzi zuten emanaldia.



AINZANE AGIRRE

Txotxongilo emanaldi laburra ere tartekatuta zuten ikuskizunean.



KORRIKA KULTURALA | AFRIKA, FJORD ETA SHARON STONER ELGETAKO ESPALOIAN

Hiru estilo ezberdin bailarako lehen Korrika kontzertuan

Non. Elgetako Espaloian.
Zenbat jende. 150 lagun.
Iraupena. Hiru ordu eta erdi.

Larraitx Zeberio

Rock kontzertua izan zen zapatu gauean Espaloian. Debagoienan egin den Korrika kulturalaren lehen kontzertua izan zen eta estilo oso ezberdinak jorrazten dituzten hiru talde aritu ziren Elgetan.

Korrika 14ko kantaren egilea den Afrika Bibang izan zen lehen hasten. Bere musika ezagutzen ez genuenondako aurkikuntza

atsegina izan zen. Abeslari algortarrak oso estilo berezia jorrazten du. Soul, reage, jungle, hip-hop eta jazz estiloak nahasten ditu; denak erritmikoak eta dantzagarriak oso. Jendeak gustura astindu zuen gorputza.

Emanaldia amaitzeko, nola ez, Korrika 14ren kantua eskaini zuen.

Afrikarekin dantzatu, Fjord taldearekin zoratu eta Sharon Stoner taldearekin gozatu

FJORD ETA SHARON STONER
Rock estilo gogorragoaren txanda iritsi zen jarraian. Emanaldiari hasiera eman aurretik Fjord taldekoek Japongo Pride borrokaren irudi bortitzak proiektatu zituzten. Metala entzun genuen ondotik eta baita punk-rocka eta hard-rocka ere. Aurreko irudien zergatia abeslariaren jantziarekin eta kantuen letra borrokalariekin ulertu genuen.

Kontzertuari amaiera emateko Sharon Stoner taldea aritu zen. Orduak joan ahala Espaloia husten joan zen eta oñatikoez publiko gutxi izan zuten zapatuan. Euren emanaldia, hala ere, ona izan zen oso. Gero eta gusurago eta erosoago ikusten ditugu taula gainean.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

CANTE FLAMENKOA | AL ANDALUS ELKARTEAK ANTOLATUTAKO LEHIAKETA ISABEL RICOK IRABAZI ZUEN

Emakumeek konbentzitu zuten III. Cante Flamenkoaren lehiaketan

Maila handia erakutsi zuten III. Cante Flamenkoaren lehiaketako finalistek. Jende asko egon zen Amaia antzokian

Rafa Gomez

Arrasateko Amaia antzokia jendez gainezka zegoela jokatu zen finala; tartean Arrasateko alkate Ignacio Lakuntza eta kultur zinegotzi Ines Aldai, Gipuzkoako eskualde-etxeen federazioko lehendakari Jose Antonio Bilaboa eta Euskadiko Andaluziar etxeen Federazioko lehendakari Antonio Chaves zeuden, flamenko *cante*aren 3. lehiaketako sarien babesleak guzti-guztiak. Lehiaketa honek espainiar estatuan jokatzaren beste lehiaketa batzuen mailan aritu nahi du, hala nola, Andaluzia, Levante eta Kataluniarenean.

Lehiakideak, zozketa bidez, orden honetan aritu ziren: Jose



AITOR LIZARRALDE

Isabel Ricok erakutsi zuen mailarik onena. Horrela erabaki zuten epaimahaiko bost kideek.

Emaitzak

1. Isabel Rico (Malaga)
2. Rocio Ruiz (Gatate)
3. Paco Guerrero (Gasteiz)
4. Antonio Parra (Nafarroa)
5. Jose Parra (Nafarroa)

EPAILEAK

Raimundo Navarro
Angel Lopez
Jose Luis Martinez
Ernesto Perez
Adolfo Diez

Parra, Antonio Parra, Paco Guerrero, Rocio Ruiz eta Isabel Rico. Guztiek Alejandro Martin gitarra jotzailea izan zuten lagun, Paco Guerrerok izan ezik. Honek bere gitarra jotzailea ekarri zuen.

MAILA HANDIA ETA ERABAKI ZAILA

Lehiakideen maila handiak epai-leen erabakia zaildu zuen; tarte txikia atera zuten lehiakide guztiek. Azkenean, Isabel Rico, Malagan bizi den kordobarra izan zen irabazlea eta Euskal Herrian bizi

den sailkatu onenaren saria Paco Guerrerok lortu zuen.

Joan-etorriko kanten interpretaziorik onenaren saria Caceresen jaio, baina gaur egun Bil-

bon bizi den Juan Luis Victorrek irabazi zuen.

Sariak Al Andalus elkarteko kideek banatu zituzten, eta baita aurretik aipatutako herrialde-

etxeetako ordezkariak eta Arrasateko udal ordezkariak ere. Alkateak, gainera, Al Andalus elkartea laguntzen jarraitzeko konpromisoa hartu zuen.

Flamenkoa *cante*, gitarra eta dantzaz osatzen dela kontuan izanik, Sueños de Andalucía dantza taldeak parte hartu zuen. Jon Anduezak aurkeztu zuen saioa, Al Andaluseko presidentek lagunduta. Amaitu aurretik, lehiaketaren babesle guztiei esker-erak eman zizkien Rafa Gomez presidentek.

*Joan-etorriko*en interpretaziorik onena Juan Luis Victor bilbotarrak egin zuen

Al Andalus elkarteko Sueños de Andalucía taldeak ere parte hartu zuen Flamenko jaialdian

Argitara Arantzazuko Amak Ameriketara duen presentzia jasotzen duen liburua

Larraitz Zeberio

Kalean da *Arantzazuren aztarnak Amerikan* liburua. Bertan, Oscar Alvarezek eta Idoia Arrietak 2002. urtean Oñatin burututako "Arantzazu eta Frantziskotarrak Ameriketara" izeneko I. Nazioarteko Kongresuan aurkeztutako hamar ponentzia jaso dituzte.

Barikuan aurkeztu zuten liburua Oñatiko kultura etxean. Bertan izan ziren liburuaren editore Oscar Alvarez, Oñatiko alka-

te Andoni Gartzia, Iñaki Beristain frantziskotarra eta Eusko Ikerkuntzako Garazi Lopez de Etxezarreta. XVII. mendetik XX.era bitartean Ameriketara joandako euskaldunek sortze-riaren eta Arantzazuko Amaren oroitzapena gorde zuten. Baita kofradiak sortu, tenpluak eraiki eta irudiak jarri ere. Lanok presentzia hori arakatzaren dute. Eusko Ikerkuntzak 500 ale argitaratu ditu eta dagoeneko salgai daude Oñatiko turismo bulegoan.



Editorea, frantziskotarra eta Oñatiko alkatea aurkezpen ekitaldian.

LARRAITZ ZEBERIO

Zapatu honetan egin du Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak urteroko batzar nagusia. Bertan, 2004ko egitasmoak eta diru kontuak nola joan diren argitu da,

baita 2005eko lan ildo nagusiak finkatu ere. Hiru ordu eta erdiko batzarraren amaierarako utzi zuten bertsozaleek lehendakari berriaren hautatzea. Ainhoa

Agirreazaldegik bertsolari bergararren esanetan oso ekitaldi hunkigarria izan zen. Iñaki Muruak hartu du Imanol Lazkanok utzitako lekua.

AINHOA AGIRREAZALDEGI | BERTSOLARI BERGARARRA

“Gurean ez dago hain jatorri eta maila profesional ezberdinetako jendea biltzen duen elkarterik”

Larraitz Zeberio

Ikerketa saileko partaidea zara. Zein egitasmo finkatu dituzue 2005. urterako?

Bertsozale elkarteko ikerketa saila oso lan bolumen handia hartzen ari da. Urte honetarako lehenetsuneko lau puntu finkatu ditugu. Ikerkuntza bera, bateratze prozesua, txapelketa nagusia eta gure ohiko programazioa. **Zer egiten duzue Ikerketa sailean?**

Komunitate zientifikoak ez dio bertsolaritzari erantzunik ematen. Elkarte bera da ikerketa lekua. Dokumentazio zentroa 1993tik daukagu martxan eta izugarrizko dokumentazio piloa biltzen ari gara. Material hori ikerlariendako daukagu eskuragarri. Taldearen zereginak dira ikerketak bultzatzea eta batzuetan egitea ere. Guk hiru urte daramatzagu mapa bat egiten. Orain arte zer aztertu den jaso dugu mapa horretan. Aurten hasiko gara zer aztertu beharko litzatekeen zehazten.

Zer berri eman dezakezu aurten jokatu den txapelketa nagusiaren inguruan?

Ez da ezohikoa guretzat. Ez dauka aparteko berezitasunik. Jendearendako, beharbada, finala Bizkaian jokatu dela, baina gu Anoetako espiritua bertara eramaten saiatuko gara.

Zergatik finala Barakaldon?

Erdaldunengana hurbildu nahi dugu. Nazioarte mailako topaketak egin izan ditugu eta hutsune hori nabaritu dugu beti. Ez dugu Euskal Herriko erdalgunetara hurbiltzea lortu. Salto hori eman nahi dugu.

Zertan da elkartearen bateratze prozesua?

Batez ere barne kohesioa lantzen nahi dugu. Bateratze prozesuak bere garrantzia dauka, sortu zen elkarte eta gaur egungoa oso diferenteak direlako. Urte pare bat dira bateratze prozesu honekin ari garela, ikusi genuelako elkartearen inguruan sortu den lan bolumena handia dela. Jende asko zaindu behar da. Lan taldeko kideek denean behar zuten izan adituak. Horri guztiari forma eman behar zaio.

Bertso eskolek ere badute garrantzia 2005eko egitasmoetan?

Ezinbestekoa da bertso eskolen inguruko gogoeta egitea. Gizartean aldaketa handiak bizi ditugu. Bertso eskoletan berdin. Elkarteak bertso eskolei zein laguntza eskaini diezaiekeen finkatu behar dugu.

“Gure lehentasunak aurten ikerkuntza, bateratze prozesua, bertso eskolak eta bertso txapelketa nagusia dira”

“Bi azterketa egingo ditugu bertsolaritza zertan den eta elkartearen lana zein izan behar den argitzeko”

Ez da ordea egitea erabaki duzuen gogoeta bakarra.

Ez. Hamar urteotako gure ohiko programazioa egiteko oso baliagarriak izan ditugu 1983an eta 1997an burututako bertsolaritzaren eta bertsozaleatasunaren inguruko bi azterketa. Uste dugu iritsi dela momentua hurrengo gure urteotako ibilbidea markatuko duten beste bi azterketa egiteko. Datuak eguneratu egin behar dira. Ikusi egin behar dugu bertsolaritza zertan den, gero gure erronkak zeintzuk izan beharko liratekeen finkatzeko.

Lehendakari aldaketa hunkigarria izan da oso, ezta?

Berezia izan da ez bakarrik Iñaki Muruak lekukoa hartu delako, baizik eta Imanol Lazkanok elkartearen sorreratik beretik ezagutu dugulako lehendakari karguan. Bertsoak kantatu ditugu, bideo bat ikusi dugu... Elkarte honek zenbat belaunaldi elkaritzen dituen ikusi dugu. Uste dut Euskal Herrian ez dagoela hain jatorri eta maila profesional ezberdinetako jendea biltzen duen elkarterik. Gizatasun maila handia da. Administrazioak jarritako muga guztien gainetik elkartearen jende askok egin du borondatezko lana. Eta Imanolek sekulako lan talde hori hedatzen asmatu du. Pentsatzen dugu, gainera, Iñaki Muruak ere bide berdinetik jarraitzeko ahalmena daukala.

Jarraitzen duzu ibarreko bertsolaritza giroa? Zertan dira hementxe bertso eskolak?

Ni orain bailaratik kanpo nago baina badakit jende berria lanean ari dela eta badaukagula zer egina. Bertso eskolaren mugi-



Ainhoa Bergarako Artatse elkarteko bertso-afarian izan zen zapatuan.

mentuak fase eta etapa ezberdinak izan ditu gure bailaran. Leintz bailarako bertso eskola izan zenak hainbat adar eman ditu. Hor ditugu Bergara, Oñati eta Arrasateko bertso eskolak esaterako. Egia da zaletasuna jaitsi egin dela eta badaudela Gipuz-

koan erreperatu beharreko terreno batzuk. Jakin badakit, ordea, bertso eskolek lanean dihardutela. Aurten bertso saioak egon dira hezkuntza arautuan. Nik uste transmisioa ona dela nahiz eta zeregina ere badaukagun.

Zapatuan urteroko bertso afaria egin zuten Bergarako Artatse elkartearen

Bergarako Artatse elkartearen bertso afaria izan zen zapatu gauean. Urteroko hitzordua izaten da Artatsekoa eta berakatz zopa eta bakailaoa jan ostean, Xavier Silveira eta Arkaitz Estiballes bertsolaria zeuden iragarrita kanturako.

Baina azken orduko ezusteko bat zela eta Igor Elortzak hartu zuen Estiballesen lekua. Artatse elkartearen bildutako 75 lagunek, beraz, Nafarroako eta Bizkaiko txapeldunen arteko bertso lehiatzeko gozatu zuten.

Txapelketa Nagusia aurten denez haren aipamenik ez zen falta izan afal osteko bertso saioan. Horretaz gain, politikaz, kirolaz eta

beste hainbat gaitaz jardun zuten; librea lehenengo eta Ainhoa Agirreazaldegik emandako gaiak erantzunez gero.

Ainhoarendako, beraz, egun lanpetua izan zen zapatukoa. Goizez bertsolaritza elkartearen batzar nagusia izan zuen Zumaian. Bazkaria ere bai. Iluntzean, berriz, bertso afaria Artatsen eta gai jartzaile lanetan gainera.

Luze joan zen saioa eta ia 02:00ak bitartean aritu ziren Igor Elortza eta Xavier Silveira. Atsedena ere hartu behar izan zuten bertsolariek eta tartetan Enaitz eta Aritz Alustiza trikitilarien doinuek giroa alaitu zuten Artatsen.



Sexualitatearen gaineko film laburren lehiaketa, Sexmetraia, aurkeztu dute

Arrasateko Udal Sexologia Sailak antolatu du, eta edozeinek parte har dezake. 2.400 euro emango dituzte hiru saritan

Leire Kortabarria

Sexmetraia izeneko film labur lehiaketa antolatu berri du Arrasateko Udal Sexologia Zerbitzuak. Edozein aurkez daiteke: berdin dio zein nazionalitatekoa izan edo filma zein hizkuntzatan eginda dagoen.

Baldintzak dira filmak sexualitatearen gainekoak izatea eta 2002ko urtarrilaren 1aren ondoren ekoiztuta egotea. Izenematea zabalik dago ekainaren 10era bitartean, eta lehiaketa bera ekainaren 28an jokatuko da. Lanak bidal daitezke postaz edo Internetez. Lehiaketaren inguruko nondik norako guztiak sexologia zerbitzu horren webgunean daude,

honako helbidean: www.sexologiazerbitzua.com/sexmetraia. Hiru sari emango dituzte: Sexmetraia irabazlearen saria, 1.500 euro; Sexologia saria, 600 euro; eta Sexologia Euskaraz saria, 300 euro.

Lehiaketa horrek gura du, antolatzaileen esanetan, "gizon eta emakumeen bizitzeko errealitate ezberdinak gizarteratu eta goraiatu" eta "errealitate anitz horiek islatu".

EUSKAL FILM LABUR SAIOA

Zirkuitu komertzialetik kanpoko zinemagintza aitzakia da beste ekitaldi baterako ere.

Izan ere, Topaguneak bigarren urtez antolatu du euskal film laburren zikloa, eta Deba goienera iritsiko da egunean, hilak 24. Aretxabaletako udal etxe zaharrean, 21:30ean, honako filmak emango dituzte: *Ostertz* (Iñaki Beraetxe eta Iñigo Kintana), *Lepokoa* (Safy Nebour); *Amnesia* (Angel Aldarondo), *El salto de Beamon* (Ane Muñoz Mitxelena) eta *Amuak* (Koldo Almandoz). Filmok Arrasate eta Oñatin ere emango dituzte, martxoaren 3an.

Labur

Argazki erakusketa bat eta ikuskizun bat daude aukeran Espaloian

Argazki erakusketa bat eta ikus-entzunezko emanaldi bat dira datorren asteko kultura proposamenak Elgetako Espaloia antzokian. Batetik, Antonio Irisarri lizarrarraren 42 argazkien erakustaldia zabalik dago martxoaren 2a arte. Irisarri Parkinson gaitza du eta argazkilaritzak horri aurre egiten laguntzen dio.

Bestetik, egunean, hilak 24, 20:00etan. Bihotz Bakartien Klubak *Arrakalak* ikuskizuna egingo du. Poesia errezitaldi bat da, animaziozko irudiekin eta musikarekin lagunduta.

'Medikuak esan dit minbizia dudala' liburua aurkeztuko dute bihar

Medikuak esan dit minbizia dudala (Elkar) liburua aurkeztuko du Joxe Arantzabal arrasatearrak bihar, martitzena, Arrasateko Monterron jauregian, 19:00etan. Xabier Mendiguren Elizegi, Mikel Irizar eta Iban Arantzabal ere izango dira aurkezpenean.



Oscar sarietarako proposatutako hiru film emango dituzte egunotan

Oscar sariak otsailaren 27an emango dituzte, eta egunotan badugu aukera izendatutako film batzuk ikusteko. Arrasaten, gaur, astelehena, *El Aviador* emango dute, sarietarako faboritua, 11 izendapen ditu-eta, horietako asko kategoria garrantzitsuenetan. Bestetik, Oñatin, gaur ere, *Closer* filma emango dute, aktore-zerrendako gizonetako eta emakumezko aktore onenaren sarietarako izendatuta. Eta hilaren 25ean, *Conociendo a Julia* emakumezko aktore onenaren sarirako proposatutako filma emango dute Aramaion.

Hitzorduak



TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITONEK BI SAIO GRABATUKO DITUZTE GUREAN | Astelehen eta martitzenean izango dira, Arrasateko Amaia antzokian

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo ezagunek *Trikitraka Trikitron* euren telebista saioko bi atal grabatuko dituzte Arrasaten. Gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, izango dira gurean. Grabaketak jendaurrekoak izango dira, eta gura duen guztiak sarrera erosi eta publiko moduan joateko aukera

izango du. Amaia Udal Antzokian izango dira grabaketok, 19:00etan.

Sarrera txartelak salgai izan dira joan diren egunotan, baina geratzen direnak erosteko aukera dago antzokiko txarteldegian. Euro bat da; euro erdi, Betizu txartela dutenendako.

DEIAK |

• **Koadrien Aratusteetako argazkiak, Nahikari tabernan** Bergarako taberna horretan Aratuste zapatuan ateratako argazkiak eskatzeko aukera dago, tabernara bertara joan da edo www.nahikari.com webgunean.

• **Bertsoak enkarguz egiten ditu Txatxilipurdi elkarteak** Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi elkarteak bertsoak enkarguz egiten ditu. Prezio egokia eskaintzen dute, eta 72 orduan erantzungo dutela agintzen dute. Argibide gehiagorako, jo euren webgunera: www.txatxilipurdi.com.

ANTZERKIA |

• **Umeendako ipuin kontaketa saioa izango da Eskoriatzan** Peio Añorga ipuin kontalariak 5-6 urtetik gorako umeendako saioa egingo du egunean, hilak 24, liburutegian, 18:00etan.

ZINEMA |

• **Alejandro Magno filma emango dute Bergaran** Novedades aretoan izango da emanaldia gaur, astelehena, 19:30ean. Sarrera 3 euro da.

• **Nueve reinas filma emango dute eguaztenean Elgetan** Espaloia kafe antzokian emango dute film hori etzi, eguaztenean, 21:30ean.

• **Beautiful boxer filma Bergaran, zineklubean**

Novedades aretoan izango da emanaldia egunean, hilak 24, 20:00etan. 4 euro da sarrera.

• **Bagdad rap filma emango dute Oñatin, zineklubean** Egunean, otsailak 24, izango da, 20:00etan, kultura etxe zinema aretoan. Arturo Cisnerosek egindako dokumentala da eta Irakeko gerra gaitzesten du. Egun berean, Bergaran ere emango dute, Komite Internazionalisten ekitaldi baten.

• **El abrazo partido filma emango dute Arrasaten** Egunean, hilak 24, emango dute film hori zineklub saioan, Amaia Antzokian, 20:30ean.

• **Monster filma ikusteko aukera izango da Antzuolan** Egubakoitzean, hilak 25, emango dute film hori Olanan etxean, 22:00etan.

LEHIAKETAK |

• **Ibarraundi Museorako izen eta logotipo lehiaketa** Eskoriatzako Ibarraundi Museorako izen eta logotipo lehiaketa deitu dute. Izenak gune berriaren adierazgarri izan beharko du; logotipoak Axtrokiko ontziak izango ditu oinarri. Proposamenak Ibarraundi jauregian utzi behar dira, kartazal baten, martxoaren 8ra bitartean. 300 euroko saria emango dute.

OSPAKIZUNAK |

• **Aittajaun-amandrien astea egingo dute Elkar Hezin** Oñatiko ikastetxe horrek aittajaun-amandrien astea egingo du gaur, astelehena, hasi eta egubakoitzera bitartean, eta aste berezi hori borobiltzeko, egubakoitzean, otsailak 25, omenaldia egingo diete.

ERAKUSKETAK |

• **Idoia Azkarateren margo erakusketa, hil osoan** Margolari bergarar horren 21 lan ikusteko aukera egongo da Bergarako Nahikari tabernan hil bukaerara bitartean. Bere lehen erakusketa da.

TURISMOA |

• **Lau bisita gidatu, Oñatiko Turismo Bulegoaren eskutik** Lau bisita gidatu antolatu ditu Oñatiko Turismo Bulegoak, guztiak Oñatiren alde monumental eta historikoaren ingurukoak. Erreserbak egiteko, deitu 943 78 34 53 telefonora.

MUSIKA |

• **Megadeth eta Diamond Head taldeen kontzertua** Megadeth eta Diamond Head taldeen emanaldia egongo da hilaren 24an, eguena, Bergarako Jam aretoan, 20:00etan. 28 euro da sarrera, bai alde aurretik, bai txarteldegian bertan erosita.

Zorion agurrak



ARRASATE
Oskar Kustodio
Otsailaren 6an,
urtebetetzea.
Zorionak *Bala!*
Lagunak.



ARRASATE
Nerea Kerejeta
Otsailaren 9an, 27
urte eta 12 egun.
Zorionak!
Koadrilakoak.



ARRASATE
Javier Donoso
Otsailaren 11n,
urtebetetzea.
Zorionak *Donoso!*
Lagunak.



ARRASATE
Aimar Etxebeste
Otsailaren 13an,
urtebetete. Zorionak
eta muxu bat!
Oier eta Ibai.



ARRASATE
Iban Benitez
Otsailaren 14an,
urtebetetzea.
Zorionak *Benito!*
Lagunak.



ARRASATE
Ane Jimenez
Otsailaren 15ean, 13
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Koadrilakoak.



ARRASATE
Aitor Marco
Otsailaren 22an, 4
urte. Zorionak!
Aitaxo, amatxo,
Rakel eta familia.



ARRASATE
Loli Miner
Otsailaren 22an,
urteak. Zorionak
eta muxu bat!
Ilobenak.



ARRASATE
Juli Arregi
Zorionak munduko
amama onenari!
Eskerrak eta
muxuak. Ilobak.



BERGARA
June Alberdi
Otsailaren 9an, 5
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Jone Agirrezabal
Otsailaren 19an, 11
urte. Zorionak!
Garazi, Aitor, aita-
txo eta amatxo.



BERGARA
Xabier Alberdi
Otsailaren 19an, 3
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Marije Valle
Otsailaren 20an,
urteak. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.




BERGARA
Andrea Gonzalez
Otsailaren 20an, 7
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ibai Etxabe
Otsailaren 20an,
2 urte. Urte
askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Ane Laskurain
Otsailaren 20an, 6
urte. Zorionak eta
urte askotarako
printzesa! Etxekoak.



BERGARA
Eider Monkaiola
Otsailaren 21ean,
7 urte. Zorionak!
Ainhize, Ibon eta
Julen.



BERGARA
Uxue Agiriano
Otsailaren 23an,
4 urte. Zorionak
eta musu handi
bat! Familiakoak.



BERGARA
Xabi Arzelus
Otsailaren 25ean,
2 urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Martxel Belategi
Otsailaren 27an, 4
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoak.



OÑATI
Goretti Abaunza
Otsailaren 21ean, 6
urte. Familia guztia-
ren partetik!
Etxekoak.



ESKORIATZA
Unai Bastardo
Otsailaren 14an, 4
urte. Zorionak eta
muxu bat!
Etxekoak.



ESKORIATZA
Oihane Bengoa
Otsailaren 19an, 12
urte. Zorionak eta
muxu handi bat,
Etxekoak.



ESKORIATZA
Lide Crespo
Otsailaren 23an, 5
urte. Zorionak eta
muxu bat. Mikel eta
etxeko guztiak.



ESKORIATZA
Leire Errasti
Otsailaren 25ean,
urtebetetzea.
Zorionak eta muxu
bat. Txino.



ANTZUOLA
Arkaitz Zabalo
Otsailaren 13an, 28
urte eta 8 egun.
Zorionak!
Koadrilakoak.



ELGETA
Iban Arantzabal
Otsailaren 21ean,
30 urte.
Zorionak panpoxa!
Lagunak.



LEINTZ GATZAGA
Asier Urizar
Otsailaren 20an, 7
urte. Zorionak
amamaren eta
amaren partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza ezusteko ederra!

Hildakoak

Felix Zubia Zabala
Eskoriatzan, otsailaren 17an. 84 urte.
Angel Etxabe Arana
Aretxabaletan, otsailaren 17an. 67 urte.
Higinio Igartua Arruti
Bergaran, otsailaren 19an. 83 urte.

Bernardino Zuazubiskar Arrizabalaga
Arrasaten, otsailaren 19an. 82 urte.
Alejandro Martin Lazaro
Arrasaten, otsailaren 19an. 95 urte.

Jaiotakoak



Olatz Maidagan Pagaldai
Arrasate • 3,200 Kg.
Otsailak 13. Gurasoak:
Joseba eta Ainhoa
(Arrasate). Argazkian:
Olatz lotan.



Unax Errasti Urteaga
Antzuola • 3,850 Kg.
Otsailak 15. Gurasoak: Josu
(Antzuola) eta Izar
(Lazkao). Argazkian: Unax
gurasoekin.



Haizea eta Bidatz Larraoiti Ibabe
Aramaio • 2,300 Kg.
Otsailak 17. Gurasoak: Iñigo
(Otxandio) eta Josune
(Aramaio). Aitona Enrikerekin.



Lorea Olaizola Ruiz de Azua
Aramaio • 3,300 Kg.
Otsailak 18. Gurasoak: Josu
eta Arantzazu (Aramaio).
Argazkian: Lorea amarekin.

ESKER ONA

Felix Zubia Zabala

Arrasaten hil zen 2005eko otsailaren 17an, 84 urte zituela.

“Aitona maitea”

Nahiz eta gure artetik urrutira joan,
beti izango zaitugu urrean,
gure bihotzean.



Eskoriatzan, 2005eko otsailaren 21ean.



Nerea de la Maza Etxeberria
Arrasate • 3,420 Kg.
Otsailak 19. Gurasoak:
Rafael (Arrasate) eta Idoia
(Orio). Gurasoekin.

sms mezuak

• Aupa, Reala! Banekien ba
nik lortuko zuela! Peña
txurdin!

Nihat, animo!
• Zorionak *Bala, Don, Benito*
eta *Negro!* Koadrilakoak.

• *Benito.* Zure urtebetetzea
ozpazteko afaria eta ez
zatoz afaltzera!! :-)

Baita SMS bidez ere!



Bidali mezua:
**gnkzorion [laga tartea] [mezua]
7744 zenbakira.**

Hurrengo
Asteleheneko Goienkaria-n irakurri
ahal izango du berak zure mezua...

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa



MERKEALDIA AZKEN ERREMATEA

KIROL-MODAN, OINETAKOETAN, ARROPËTAN;
MENDI, IGERIKETA ETA AEROBIC-EKO ARTIKULUETAN;
KANTXAKO KIROLETAN, OSAGARRIETAN, ETAB.

0% 50

ERAINO

MARTXOAREN 6RA ARTE

SPORTLAND
FORUM SHOPS

SPORTLAND ARRASATE Garibai Etorbidea, 2-6

KIROLA ZEURE ESKURA

Gaur irratian

Arrasate Irratia
FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:00

Erreferendumaren emaitzak eta ondorioak

Erreferendumaren gaineko emaitzak eta ondorioak aztertuko dituzte. Hainbat gonbidatu izango dituzte horretarako. Besteak beste, MUko Enpresa Zientzien Fakultateko Urko Lopez. Horrez gain, ETBko pailazo-en ikuskizuna berbagai izango dute.

Oñati Irratia

FM 107.4

Neguko programazioa | 12:15

Josu Iztueta, munduko artzainen gainean

Nairobitarra egitasmoarekin hainbat bidaia antolatutako zituen taldeko Josu Iztueta Oñati Irratian izango da. Hiru hilabetean Arantzazuko Artzain eskolan izan da, eta munduan barrena dauden artzainen gainean berba egingo du.

Loiola Irratia

FM 99.8

'Muxutruk' | 11:00

Eguneko albisteei gainbegiratu sakona

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 11:30

Etxebizitzaren alokairuen gaineko erreportajea

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 11:30

Gidatzeko baimenaren azterketaren gainean

Gaur telebistan

GOITB



Julian Iantzi aurkezlea 'Ilunpean'-en

14:45 Oihana Elortza kazetariak ETBko Julian Iantzi aurkezleari elkarrizketa egin zion telebista platoon.

13:50 Marrazki bizi-dunak: *Fernando Amezketarra eta Lazkao Txiki*.

14:15 Berriak. Gorka Etxabek gidatutako albistegien asteburuak eta astelehenak eman dituen albisteak labor-bilduko ditu.

14:45 *Ilunpean*: Julian Iantzi.

15:15 *Gure lanbide zaharrik*: Lurra.

15:45 Berriak.

16:15 *Klip@*. Euskal Herriko eta nazioarteko hainbat musikariren bideoklipak.

19:30 Emisio hasiera.

19:35 Gaurkoak.

19:45 *Klip@*.

20:00 Berriak.

20:30 Marrazki bizi-dunak: *Fernando Amezketarra eta Lazkao Txiki*.

21:00 *Harmailatik*. Kirolaren gaineko saioa, Julen Iriondok gidatuta. Azkoagaian zelaian jokatuak Aloña-UDA futbol derbiaren gaineko laburpena.

22:00 Berriak. Deiane Arrieta kazetariak asteburuak eta astelehenak eman dituen albisteen errebasoa egingo du.

22:30 *Harmailatik*. Errepikapena.

23:30 *Gaurkoak*. Eguneko albistek.

ETB 1



Immigrazio arazoak 'Goenkale'-n

21:45 Khalaf urduri dago, immigrazio proba bat egin behar diotelako. Agustinek beste arduratatzuk izango ditu.

07:05 Tik-Tak circus.

07:25 Betizu: *Doug, Hartz txiki, Doremiren magia, Sorgin asper-tua eta Euli ipuinak*.

09:05 E-klip@.

09:30 Elkartasunaren bideak.

10:10 Bidaibide. X indarra.

11:55 Bertarik bertara.

12:25 Hitzetik hortzera.

13:05 Barne barnetik. Lakuntza.

13:35 Betizu. Sheherazade printzesa.

14:00 Gaur egun 1. Maribel Aizarna eta Joseba Iriondokin.

14:40 Postdata.

14:45 Eguraldia.

14:45 Hasiberriak.

Home, sweet home.

15:15 Bidaide.

17:00 Sustraia.

17:30 Gag-gag.

17:35 Eklipse@.

18:00 Iparraldearen orena.

18:05 Betizu.

20:20 Eguraldia.

20:28 Gaur egun.

21:05 Bertatik bertara.

21:45 Goenkale.

22:25 *Ze kosmopolita*. Aintzane Gamiz eta Iñaki Beraetxekin.

23:30 Ero eta bero.

00:25 Eguna iruditan.

00:30 Postdata.

00:35 Teknopolis.

01:00 Egi bidean.

ETB 2



Klaudio Landarekin 'Esta es mi gente'

20:20 Klaudio Landarekin hainbat urte darama ETB2ko herritarren testimonioen gaineko *Esta es mi gente* aurkezten.

07:45 Rutas de solidadidad. *Venezuela, en la patria de Bolívar*.

08:05 Embrujada.

09:00 Forum. David Barberok Jorge Edwards idazleari elkarrizketa egin dio.

09:30 El punto. Juan Luis Bikuñarekin.

10:20 Cosas de casa.

12:15 Se ha escrito un crimen. *¿Quién puso barbitúricos en la sopa?*

13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.

14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azuarekin.

15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin.

16:00 Pásalo. Adela Gonzalezek eta Iñaki Lopezek aurkeztutako magazina.

18:25 Siempre cine. Zehaztu bariko filma.

20:20 Esta es mi gente. Klaudio Landarekin.

20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrarekin.

21:50 Eguraldia.

21:55 El conquistador del fin del mundo. Julian Iantziarekin.

00:00 El día de imágenes.

00:05 El diván de Julian. Julian Azkaraketek aurkeztutako saioa.

01:35 La zona muerta.

02:35 Esta es mi gente.

TVE 1



'59 segundos' programan, mahai-inguruak

14:30 Mamen Mendizabalek gidatzen duen programan mahai-inguruak, elkarrizketak eta erreportajeak.

07:00 Telediario matinal. Igor Gomez eta Susana Rozarekin.

09:00 Los desayunos de TVE.

10:15 Saber vivir.

11:15 Por la mañana. Elkarrizketa, tertulia eta lehiaketek osatutako goizeko magazina.

13:00 Ines Ballesterrek eta Manolo Gimenezek aurkeztzen dute. Horrez gain, Ana Blancoren albistegia emango dute.

14:00 Informativo territorial.

14:30 Corazón de verano. Anne Igartiburuk aurkeztuta.

15:00 Telediario 1.

15:55 El tiempo.

16:00 Obsesion.

17:00 Te voy a enseñar a querer.

18:00 Smalville. *Persecución*.

19:15 Esto es vida.

20:00 Gente. Alicia Fernandez Santolaya eta Sonia Ferrerarekin.

21:00 Telediario 2.

21:55 El tiempo.

22:00 Splunge. Florentino Fernandezek aurkeztutako umorezko programa. Sketchak eta elkarrizketak.

23:40 59 segundos.

01:30 Telediario 3.

02:00 Deporte.es.

02:30 Los siete mágicos.

03:30 Canal 24 horas albistegia.

La 2



Literatura berbagai, 'Estravagario'-n

23:30 Javier Rioyok literaturaren gaineko programa aurkezten du. Rioyok *El perro verde* saioa gidoigilea izan zen.

07:30 Los Lunnis: *Aventuras en pañales* eta *Tweenies*.

09:30 Aquí hay trabajo.

10:00 TV educativa: *La aventura del saber*.

11:00 La botica de la abuela.

11:15 España.es.

13:00 Los Lunnis: *Art-hur, Digimon* eta *Los minimonstruos*.

15:15 Saber y ganar.

15:45 Grandes documentales. *Dragon of the Canaries*.

16:55 Frontera límite. *Telemark en Sierra Nevada* eta *Inmersión en la Isla de Lobos*.

17:30 Los Lunnis: *Pato Bill, Los Lunnis* eta *Misión Odisea*.

19:15 Padres en apuros.

19:30 Pueblo de Dios. *La Graciosa, una isla habitada*.

20:00 Informativo territorial.

20:30 Previo futbol. UEFA Champions League.

21:00 Vivir con Mr. Cooper.

21:30 Miradas 2.

21:55 Sorteo de la Bonoloto.

22:00 La 2 Noticias.

22:30 El tiempo.

22:35 En portada. *Argelia, después de la batalla*.

23:30 Estravagario.

Antena 3



Budismoa eta Gere, 'Los Simpson'-en

14:30 Lisak, Springfieldeko elizaznakatuta, Budismoa aukeratuko du. Eta Richard Gerek lagundu egingo dio.

06:00 Las noticias de la mañana.

09:00 Ruedo ibérico. Montserrat Dominguezek aurkeztutako programa.

10:45 Cada día. Maria Teresa Camposek aurkeztutako saioa: elkarrizketak, tertuliak eta lehiaketak.

14:30 Los Simpson. *Budismo*.

15:00 Antena 3 Noticias I. Roberto Arce eta Jose Antonio Luquek aurkeztuta.

15:45 La vida es rosa. Rosa Villacastin eta Olga Marsetekin.

17:00 Aventura en Africa. Lehiaketa horren eguneroko laburpena.

18:00 Números locos. Carlos Soberak aurkeztutako lehiaketa.

19:00 El diario de Patricia. Testimonioen programa. Patricia Gaztañagak aurkeztuta.

20:15 Pasapalabra. Silvia Jatok aurkeztutako lehiaketa dibertigarria.

21:00 Noticias 2. Matias Pratsek.

21:45 El pelotón. *Hole*. Suspentsea. Thor Birch, Daniel Brocklebank eta izen handiko beste aktore batzuekin.

00:05 7 días, 7 noches.

02:00 Noticias 3.

Tele 5



Argiñanoren sukaldeko aholkuak

10:45 *El programa de Ana Rosa* saioan, Karlos Argiñanok saltxitza biribilkia eta gazta brik erara egingo ditu.

06:30 Informativos Telecinco matinal.

09:10 La mirada crítica. Vicente Vallesek.

10:45 El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. Horren baitan, La cocina de Karlos Argiñano.

14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carmen Chaparroekin.

Horrez gain, 15:15ean eta 15:25ean, EAeko albistegiak egingo dituzte.

15:30 Aquí hay tomate. Jorge Vazquez eta Carmen Alcaidekin.

16:30 Gran Hermano VIP.

17:30 A tu lado. Emma Garcíak aurkeztutako magazina.

19:35 Allí tú. Jesus Vazquezekin.

20:30 Informativos Telecinco.

21:30 Pecado original.

22:00 C.S.I. Miami. *El juramento*.

23:00 C.S.I. Las Vegas. *Dentro de la caja*.

00:00 Crónicas marcinas.

02:20 Informativos Telecinco.

02:45 *Madrugada de cine*. *Misión suicida*. Suspentseko filma.

04:15 Infocmercial.

06:15 Nocturnos. Telesaila.

Astean GOITBn

Astelehena, 21



'Harmailatik' | 21:00,

Aloña Mendi-UDA derbiaren gaineko saioa

Julen Iriondo kazetariak gidatzen duen *Harmailatik* kirol saioan, Aloña eta UDA taldeen arteko derbiaren laburpena emango dute. Horrez gain, beste kirol kontu batzuk.

Martitzena, 22



'Debarri' | 21:00

Eskoriatzako alkate Juan Karlos Bengoa

Alberto Gorritibereak gidatzen duen *Debarri* saioan, Eskoriatzako alkate Juan Karlos Bengoa udalerriaren gaineko zalantzak argituko ditu, eta ikusleen galderak erantzungo ditu.

Eguaztena, 23



'Danbaka bira' | 21:30

Eskoriatzako Lukas Prest taldearen kontzertua

Danbaka lehiaketarako sailkatu ez ziren taldeen kontzertuak antolatzen daibil Goiena. Horietako bi Kilometroen alde. Lukas Prest taldeak joan den egubakoitzean jo zuen.

Eguena, 24



'Auñamendietan' | 21:30

Pirinioetan grabatutako abenturak ikusgai

Auñamendietan programako lantaldeak Pirinioetan kirol ugari egin (eskalada, mendi igoera...) eta grabatu ditu. Horiek guztiak eskainiko dizkizue GOITBn.

Egubakoitza, 25



Otsailaren 21a: 032 zozketa

Harpidedunen txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, otsailak 21, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek izan dira aurreko egubakoitzean argitaratu genituen sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

Otsailaren 26an Elgetako Espaloia Kafe antzokian izango den ARRASATE BING BAND taldearen emanaldirako lau gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).

- Jose F. Iburguren Iturrino (Aramaio)
- Roberto Iria Ugarte (Arrasate)
- Joxe Mari Ganboa Arabaolaza (Arrasate)
- J.A. Zangitu Peña (Aretxabaleta)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinematara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).

- Naiara Zubizarreta Urzelai (Aretxabaleta)
- Iñaki Galdos Irazabal (Oñati)

Juan Martin Elexpururen BERGARA ALDEKO HIZTEGIA. Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat.

- Luis Azkarate Retolaza (Bergara)
- Edorta Zubizarreta Alegria (Eskoriatza)

Otsailaren 25ean Elgetako Espaloia Kafe antzokian, Elgetako Udalak antolatutako BERTSO SAIORAKO (Lizaso, Murua, Unai Agirre eta Estitxu Arozena) lau gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).

- Susana Garcia Martin (Eskoriatza)
- Luis Mari Garitano Alvarez (Bergara)
- Iñaki Azkoitia Zubizarreta (Aretxabaleta)
- Ana Molina Ibizate (Bergara)

Otsailaren 28ko sariak

- Juan Martin Elexpururen **BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**. Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat.

- Korrika Kulturalaren barruan Oñatiko Santa Ana antzokian izango den **BERTSO-TRAMA** rako (Elortza, Lujanbio, Egaña eta Arzallus) hiru gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).

- Martxoaren 4an, Elgetako Espaloia Kafe antzokian izango den **FERNANDO SAUNDERS**-en kontzertua ikusteko (Lou Reed taldeko baxu jotzailea) bi gonbidapen (saridun bakoitzarendako bi).



EIBAR-ELX

futbol partidua ikusteko lau gonbidapen.

(Saridun bakoitzarendako bi)



Hamarrekoa

PEDRO LASAGABASTER | BASERRITARRA ETA BIOLOGOA

“Behiei musika klasikoa jartzen diet; ni gustura banago, behiak zergatik ez?”

Maria Agirre

1. Onartu berri dute Kiotoko Protokoloa. Berotegi efektua igarri da Eskoriatzan?

Orokorrean, munduan izan daiteke, baina Eskoriatzan zehazki ezin esan berotegi efektua igarri denik. Hori esateko, milaka urtetako datuak behar dira.

2. Baserritarra eta lizentziaduna. Nik neuk lehenik baserritarra eta ondoren biologoa naizela esaten dut. Baina egun, ez da ezohikoa lizentziadunak diren baserritarak aurkitzea. Hala ere, egia da jendea harritu egiten dela. Ikasi baduzu, ez dute ulertzen zelatan egiten duzun lan baserrian.

3. Baserriak etorkizunik ez duela entzuten duzu sarritan. Zuk ikusiko diozu! Nik uste dut baduela etorkizuna, bai behintzat okelaren sektorean. Baina presio urbanistikoa, esaterako, oso handia da, eta horrek ezkor jartzen gaitu.

4. Zure arreba, Rosak, maratoniak egiten ditu. Anaiak? Txandala jantzi eta kirola egitera ez naiz joaten, baina baserriko lanekin kirol ugari egiten da.

5. Oso gozozalea zarela esan didate. Zenbaterainokoa? Dezentekoa. Txokolata eta ezta aurrean izanez gero... Baina fruta ere asko gustatzen zait, eta fruitu lehorrak.

6. Bilbora sarritan joaten zara opera entzutera. Askotan ez, urtean bost bider edo. Antzerkia eta musika klasikoa gustuko ditut, eta operak biak uztartzen ditu. Behiei musika klasikoa jartzen diet, Mozart eta halakoak. Ni neuk gustura banago musika hori entzuten, behiak zergatik ez? Errepide bazterrean baino hobeto daude musika lasaia entzuten.

7. Sufritzen duzu behiak Zubillagako hiltegia eramaterakoan? Duela gutxi, kuttuna nuen behi bat eraman behar izan nuen, eta apur bat sufritu nuen, baina normalean, ez. Zubillagako hiltegia aproposa da behiek gutxi sufritzeko.

8. Baserritarrek izaten duzue oporrik? Oso gutxi. Azken bi urteetan astebeteko oporraldia izan dut. Urtarrilean bertan izan zen, eta Tunisiara joan ginen. Desertuan-eta ibili ginen.



Zubillagako hiltegia dela, eta duela gutxi autobidea, sarritan izan dugu Pedro Lasagabaster eskoriatzarraren berri. Gai horietarako astia hartzen badu ere, Mazmela auzoan dituen behi eta txahalekin ere arduratzen da, 80 buru baititu. Eta, gainera, ingurumenarekin lotutako proiektuak egiten ditu, biologoa baita. Orain, harrobi bat berreskuratzeko proiektua lantzen ari da.

9. Antropologia: zure zale-tasun handienetarikoa da? Antropologia eta Kristo aurreko historia ere bai. Antropologiako liburuetan, gizarteko jokabideen azalpenak aurkitzen ditut.

10. Maria Asuncion Aranburuzabala. Badakizu nor den? Bai, emakume aberatsa, aitona Eskoriatzako zuen. Nik uste dut harekin harremanetan jarri beharko genukeela. (Barre)



Biharamuna

Iban Arantzabal

Kultura-politika

Asteburua kulturarekin lotutakoa izan dut. Antze-lan ederra barikuan, Boccacioren *Decameron*. Erotismoaren indarra eta kontuak kon-tatzeko beharra nahastu ziren izurrite batetik ihes zebiltzan antzeleengan. Jende asko kafe antzokian. Barrez hasieratik, baina harriduraz jarraitzen gero.

Zapatuan, berriz, musika. Danbakako irabazleak, Sharon Stoner, solte ikusi nituen taulan. Fjordekoek indarra erakutsi zuten eta Afrika izan zen gaueko sorpresa. Egia esan, hiru kantariekin gozatu nuen.

Domeka goizean politikarekin koak betetzera. Mahaian, Josu, Jone eta Ramon. Jota aburriduta! Jende gutxi goizean, eta gero ere... Ez dute interesik piztu hauteskundeok eta ez interesik ez dutelako.

Gai horien gainean pentsatzeko aukera eman dit asteburuak, kultura eta politikaren gainean. Ondoriorik ez dut atera, baina bai jarraibide bat: kulturatik hezi behar da arrazoiak gailentzen diren politika egin ahal izateko. Saldu beharrez egindako ekitaldi politikoekin gero eta gutxiago sinisten dut eta baita saldu beharrez egindako kultura ekitaldiekin ere. Zer pentsatua ematen duen kultura jarduna dut maiteago politiko askoren azaleko jarria baino.

Atzo, kultura elkarteko agiria erakutsita utzi zidan Josuk botoa ematen. Inora ez doan detailea da, baina asteburuak eman duena laburtzeko balio du. Kulturatik politika egiteak zentzuzkoa dirudi, nahiz eta erakundeetako kultura-politikek gutxi laguntzen duten.



- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar
project, s.l.
SUKALDEAK - BAINUAK - ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia.
Labegarieta Industrialdea BERGARA.
Tel.: 943 76 98 30. Faxa: 943 76 52 44.

